

ASTELEHENEKO Goienkaria

2008ko irailaren 22a > Astelehena > VI. urtea > 203. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Gizarteratzeko bidean lehen urratsa ematen laguntzen diegu presoari Loiola Etxean"

Txema Auzmendi
Jesuita eta kazetaria > 06



G2a Sagardo barietate handia Aramaion > 23

ARETXABALETA
Gazteak inauguratu zuten egubakoitzean > 09

TXIRRINDULARITZA
Jon Aberasturi eta Enrique Sanz garaile Oñatin eta Bergaran > 19

KULTURA
Ibane Baseta eta Mikel Igartua dantzariak nagusi Bergaran > 26



DANBORRADA San Migel jaiak hasiko dira domekan Oñatin. Aurretik, zapatuan, haurren danborradak hartu zuen protagonismo osoa.

JOSETXO ARANTZABAL

OÑATI > JAIK

Danbor hotsak Oñatiko San Migel jaiaren atarian

DANBORRADA Zapatuan 150 neska-mutiko inguruk hartu zuten parte haurren danborradan

SAN MIGELAK Domekan hasiko dira Oñatiko jaiak; ekitaldiz beteta dator aurren ere jaietako egitaraua

OÑATI > ISTRIPUA

Emakume bat hil da istripuan

Auto batek harrapatuta, atzo Arantzazun > 04

ELGETA > TOPAKETA

Vespak eta Lambrettak Elgetan

56 motor klasiko batu zituzten domekan Elgetan > 26

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Elkarrizketa > 06
Iritzia > 07-08
Herriak > 09-14
Kirola > 15-22
Kultura > 23-27
Sailekuak > 28
Irrati-Telebista eta Hitzorduak > 29
Berri-zakua > 30-31
Azkena > 32

GARAPEN IRAUNKORRA > DIPUTAZIOA

Hiru bide gorritako lanak aurreikusita Debagoienerako

Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuak bide gorrien sarean 13 milioi euro baino gehiago inbertitu ditu aurren eta urtea amaitzerako Gipuzkoan 100 kilometrotik gora izango dira bide gorrietan. Urtea amaitu aurretik, Debagoienerako hainbat lan aurreikusi dituzte. Oñati eta Epe-

le arteko bide gorriaren lehen fasea, 5,3 kilometroko luzera izango duena, azaroan aterako dute lehiaketara. Bergarako San Antonio auzotik Antzuolarako zatiak 3 kilometroko luzera izango du; azkenik, Eskoriatzatik hilerrira artekoa, 0,4 kilometro luze izango dena, azaroan aterako da lehiaketara. > 04

BERGARA > EUSKARA

Udal arauak garatu ditu Berba Bilguneak Bergaran

Berba, Bergarako Euskaltzaleon Bilguneak euskararen ordenantzen berri eman zuen zapatuan, kultura etxean. Bergaran euskararen ezagutza eta erabilera zabaltzeko eta indartzeko udal arauak dira eta jasotzen dituzte herriko esparru nagusienetan euskarari lehentasuna emateko neurriak.

Udal Hizkuntza Politikaren azterketaren emaitzak aztertu eta alderdi politikoekin ordenantzen beharraz berba egin eta gero, aldeko jarrera jaso zuten Berba Bilguneak. Herritarren, taldeen eta eragileen babesa jaso dute eta orain Udalean aurkeztuko dituzte landutako proposamenak. > 04

ASTELEHENKO Goienkaria

astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa

Iraileko zozketa

PARTE HARTZEKO

SMS 5533
harpidetza@goiena.com
Tel.: 943 08 10 50

AQUARIUM-ERAKO SARRERAK



Bidali AG SARRERAK 5533 zkra

KAMISETA + POLTSA

skunkfunk



Bidali AG KAMISETA 5533 zkra

CD-IRRATIA_STEREO

EROSKI
zurekin



Bidali AG CD 5533 zkra

BRUESAREN PARTIDUETARAKO SARRERAK



Bruesa GBC -TAU ceramica
Bruesa GBC - Real Madrid

Bidali AG BRUESATAU 5533 zkra
Bidali AG BRUESARM 5533 zkra

SARI NAGUSIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

ARBELAITZ JATETXEAN
BI PERTSONANDAKO AFARIA

Zozketan sartuko dira: 08-07-22tik 08-09-25era jasotakoak

Arbelaitz
ARBELAITZ • DONOSTIA

Datorren astean irabazleen izenak!!
Aprobetxatu azken aukera parte hartzeko!!

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena getionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

GIZARTEA > ANTZUOLAKO DYA

Behar dutenak laguntzen 25 urte eman dituzte

URTEURRENA Antzuolako DYA taldearen 25. urteurrena da gaur, astelehena; ez dute ospakizun berezirik egin

JATORRIA Sorospen ikastaroetan parte hartu ondoren sortu zen egitasmoa abian ipintzeko ideia

ALDAKETA Boluntarioek diote ordutik hona gauza asko aldatu direla; tartean, lan egiteko modua

KIROL JARDUERAK Bereziki kirol jardueretan izaten dira gaur, zaintza lanetan; beste hainbat ikuskizunetan ere

MIRIAN BITERI > ANTZUOLA

Antzuolako DYA elkarteak urteak betetzen ditu gaur, astelehena; zilarrezko ezteiak dituzte. Gipuzkoako DYAk hamar urte zituenean abian ipini zen. Juan Mari Lakuntza antzuolarrak hasitapenak gogora ekarri ditu.

Proiektua abian ipintzea kosta egin zela aipatu du. Lakuntzak 1982an sorospen ikastaroa izan zuten eta horretan 40 eta 50 lagun artean parte hartu zuten, inguruko herrietakoak gehienak. Handik urtebetera beste ikastaro bat antolatu zen eta horren ondotik egitasmoa abian ipintzea erabaki zuten: "Orduan hasi ziren ere Gurutze Gorria mugitzen. Bailaran ez zegoen horrelakorik eta ilusio handiz ekin genion horri", gogora ekarri du.

Horren harira, azaldu du guztiak oso gazteak zirela: "Gehienak ikasten geunden orduan; nagusiak 20 urte baino gehiago ez zituen izango". Baliabide gutxiarekin ekin zioten egitasmoa abian ipintzeari. Antzuolako Udalarik lokala eskatu zioten lehenik eta behin; gaur egun dauden eraikin berean ipini zuten egoitza. Bestalde, Azpeititik ekarritako anbulantzia izan zuten hasieran.

OROITZAPENAK

Oroitzapen asko ditu buruan bergararrak; batzuk onak eta beste batzuk, berriz, ahazteko modukoak. Batzuk, baina, ez dira erraz ahazten diren horietakoak. Bizi izan duen momentu gogorrena Bergaran, Santa Marina elizako ataria jauzi zenekoa dela dio. Beste behin, istripu larri batera joateko deitu zutela eta han zegoela istripua izan zutenekoak ezagunak zirela konturatu zen: "Istripuak izandako batek ezagutu ninduen. Hortik aurrera istripua beste modu batean ikusi nuen".

Oroitzapen asko ahazteko modukoak izan badira ere, momentu hunkigarriak ere bizi izan dituela aipatu du. Horien artean, urte guzti horietan lagundu izan dituen jaiotzak gogoratzin ditu Lakuntzak bereziki.

Lehenengo urte horietatik gaur arte gauzak asko aldatu direla aipatu du Lakuntzak. Boluntarioen kopuruaren jaitzieraz gain, harremana ere aldatu egin dela dio. "Lehen pertsonalagoa zen, baina orain bakoitzak bere gauzak ditu". Lana egiteko modua ere aldatu egin



BETI GERTU Argazkian DYA elkarteko hiru lagun atzo eguerdian, Bergarako txirrindularitza lasterketaren ostean.

EDU MENDIBIL

dela nabarmendu du. "Orain koordinazio gehiago dago. Osakidetzako sarea dago, DYA eta Gurutze Gorriaz gain". Hala, azaldu du egungo irteerek ez

dutela hasierako urteetakoekin zerikusirik: "Istripuetan lan egiteaz askotariko ikuskizunetan egotera pasa gara, zaintza lanak egitera. Kirol jardueretan izaten

gara bereziki. Gainera, norbait gure egoitzara etortzen baldin bada ere hartzen dugu. Aste bukaeretan egoten gara egoitzan zaintza lanak egiten".

Horretaz aparte, lehen hainbat ekimen eta antolatzen zituzten Antzuolan eta inguruko herrietan, hala nola, dirua ateratzeko zozketak eta kanpainak: "Orain guztia Gipuzkoako DYAtik koordinatzen dute". Ikastaroen antolakuntza ere Donostiatik eramaten dutela adierazi du bergararrak.

Hasieran 40 lagun inguru zeuden; gaur egun hamabi dira

1983an, Antzuolako DYA 40 lagun inguruk osatzen zuten, guztiak antzuolarrak edo inguruko herrietakoak. Urte guzti horietan 70 boluntariotik gora pasa direla eta egun, hamabi direla jakinarazi du Juan Mari Lakuntzak.

Hasierako taldeak osatzen zutenetik bi pertsonak jarraitzen dute egun: Juan Mari Lakuntza eta Aseztio Zubillaga antzuolarrak, DYako *beteranoak*. Alboko argazkia 1983ko irailean ateratakoa da, sasoi hartako boluntarioak agertzen direlarik.



Orain dela 25 urteko boluntario taldea.

GOIENKARIA

OMENALDI XUMEA

Zilarrezko ezteiak ospatzeko ekimen berezirik ez dutela egin behar dio. Urtero, urteurrenean, zaintza lanetan dauden bitartean gogora ekartzen dutela dio. Aurten ere berdina egin zuten atzo, domekan.

Antzuolako jaietan, baina, omenaldi xumea jaso zuten. Jaien hasieran izan zen hori, hontzaren jaitzian, hain zuzen. Elizako kanpandorretik udaletxera egindako ibilbidea amaitzean hontza hartu zuten.

Modu batean edo bestean behar duenari laguntzen jarraituko dute Antzuolako DYAn lanean dihardutenek.


GARAPEN IRAUNKORRA > BIDE GORRIAK

Urtea amaitu aurretik ibarrean hiru bide gorritako lanak abiaraziko dituzte

Lanak Oñati-Epele, San Antonio-Antzuola eta Eskoriatza-Hilerria zatietan hasiko dituzte

IRATI AGIRREAZALDEGI > HERRIA
Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuak aurten bide gorrien sarean egin diren jardueren eta urtea amaitu aurretik egin asmo dituztenen berri eman du. Urtea amaitzerako 100 kilometrotik gora izango dira bide gorrietan.

Ibarrerako aurrekusiak dituzte hainbat lan. Oñati eta Epele arteko lehen fasea, 5,3 kilometroko luzera izango duena, azaroan aterako dute lehiaketara. Bergarako San Antonio auzotik Antzuolara-ko zatiak 3 kilometroko luzera



Eskoriatzako bide gorri zati bat urte amaieran zabaldu nahi dute. JOSETXO ARANZABAL

izango du eta urriaren amaieran aterako da lehiaketara 1.022.000 euroko aurrekontuarekin. Eskoriatzatik hilerrira artekoa, 0,4 kilometro luze izango da eta azaroan aterako da lehiaketara 500.000 euroko aurrekontuarekin.

ESKORIATZAKO ATERAKO
Ibarrean, 2008an barrena Sorautz etxetik Eskoriatzako Aingeru Guardara kilometro bateko bide gorria, GI-627 errepidearekiko paralelo doana, egiten dihardute. Profil laua eta leuna du eta zati

horretan argiteria ipini dute baita bide gorriaren eta errepidearen artean zarataren aurkako pantailak ere. 1.742.510 euroko aurrekontua du eta urte amaieran edo 2009aren hasieran irekitzea aurrekusi dute.

Bestalde, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Sarearen Behatokiak aztertu du bide gorrien erabilera. Azterketaren arabera, ibarrean, Soraluze eta Osintxu arteko bidean egunean erabiltzaileen %8 bizikletaz ibiltzen dira eta oinezkoak dira gainontzeko %92. Batez beste lanegunetan 512 erabiltzaile izaten dira eta jaiegunetan 498.

Garapen Iraunkorreko diputatu Carlos Ormazabalak esan du beharrezkoa dela herritarren konpromisoa bizikletak erabiltzeko "ez bakarrik aisialdirako baliabide moduan, baita garraio-bide gisa ere".

> ISTRIPUA

Oñatiko emakume bat hil da auto batek harrapatuta

Domekan, goizeko 10:50ean, istripua izan zen Oñatin. Ezbeharrak Arantzazura doan bideko azken bihurgunean gertatu zen. Ertzaintzaren arabera, oraindik argitu gabeko eta ikertzen diharduten arrazoiengatik, Opel Meriva auto batek emakumezko bat harrapatu eta zapaldu egin zuen. Ondorioz, 52 urteko emakumeak, M.M.O.A. inzialdunak eta Oñatiko bizilagunak zauri larriak jasan zituen eta istripua izan zen tokian bertan hil zen.

Bestalde, Antzuolan beste istripu bat izan zen domeka goizean. Deskargarako bidean, Opel Corsa autoa errepidetik irten zen 07:45ean. Ondorioz, auto barruan zihozaz bi lagun, atzerritarrek Ertzaintzako iturrien arabera, Zumarragako ospitalera eraman behar izan zituzten zaurituta.



LA OPINION DE ZAMORA

Isaias Carrascori omenaldia Zamoran

Atzo, domeka, omenaldia egin zioten Isaias Carrasco, orain dela sei hilabete ETAK tiroz hil zuen Arrasateko zinegotzi sozialista ohiari, gurasoen jaioterrian, Morales de Toro herrian, Zamoran. Carrascoren familia bizi den kalean, plaka bat ipini zuten haren omenez. Han izan ziren, besteak beste, Gipuzkoako PSE-EEko presidente Manuel Huertas, Arrasateko PSE-EEko idazkari Paco Gartzia, Morales de Toroko alkate Luis Segovia eta Isaias Carrascoren alarguna, seme-alabak eta ama.

HIZKUNTZA > EUSKARAREN ORDENANTZAK

Berbak euskararen ezagutza eta erabilera indartzeko Udal arauak garatu ditu

Udalean aurkeztuko dute euskararen ordenantzen proposamena herriko taldeen eta eragileen babesarekin

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
Berba, Bergarako Euskaltzaleon Bilgunea euskararen ordenantzen berri eman du. Bergaran euskararen ezagutza eta erabilera zabaltzeko eta indartzeko Udal arauak dira eta jasotzen dituzte herriko esparru nagusienetan euskarari lehentasuna emateko neurriak.

SINADURA BILKETA
Udal Hizkuntza Politikaren azterketaren emaitzak aztertu eta alderdi politikoekin ordenantzen




Euskararen ordenantzen proposamenarekin bat egin duten hainbat bergarar. I.A.

beharrak berba egin ostean, aldeko jarrera jaso zuten Berbakoei. Hortaz, ordenantzen proposamena gertatu eta herritarrei ezaugarri zieten.

Herritarren, taldeen eta eragileen babesa jaso dute eta orain Udalean aurkeztuko dituzte proposamena eta sinadurak, planak aurrera egingo duen ustean.

propaganda
kartelak
kartak
jai egitarauak
pegatinak
liburuak
etiketak
txartelak
errekordatorioak
gonbidapenak
errebistak
inprimakiak



EGUZKIGRAF

inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4

20550 Aretxabaleta

Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941

E-mail: info@eguzkigraf.com

1979urtetik
zure zerbitzura

MERKATARITZA > JARDUNALDIA ARRASATEN

Herrietako komertzio txikien garrantzia eta merkatal guneak hizpide

Herrian komertzio txikiak dituztenek merkatal gune handien "arriskua" ikusten dute; Jose Allende katedradunak horren gainean jardun zuen

JASONE ZABALA > ARRASATE

Merkatal Hirigintzari buruzko jardunaldia egin zuten eguenean Arrasaten, Ibai-Arte merkatarien elkarteak antolatuta. Hizlaria Jose Allende Landa izan zen, Hirigintza Planifikazioan katedraduna. Herriko merkataria ugari hurbildu ziren Kulturatera. Allendekin batera, Arantza Arantzabal Ibai-Arteko presidentea eta Jesus Mari Elkoro Ibai-Arteko zuzendaritzakoa egon ziren mahaian.

EPE LUZERA ONDORIOAK

Allendek, besteak beste, merkatal gune handiek gizaratean eta batez ere herrietan izan dezakeen eraginaz jardun zuen: "Merkatal gune handiek gero eta arazo gehiago dituzte Europa guztian ezartzeko.



Irudian, Allende (erdian) Elkoro eta Arantzabalekin, emandako hitzaldian. M.A.

Gaur egun, gainera, merkatal guneek arazoak konpondu baino, areagotu egiten dituzte, ikuspuntu guztietatik". Allendek gaineratu zuenez, "herri batean merkatal

gune bat jartzeak epe laburrera beharbada ez du arazorik ekarriko, baina epe luzera saltoki txikien eta ertainen arazoa ikaragarria izango litzateke". Merkatal gune batek sor ditzakeen ondorioei dagokionez, batez ere kultura eta nortasunaren aldetik etorriko liritekeela adierazi zuen Allendek.

SALTOKI TXIKIAK MANTENDU

Etorkizunari begira, adierazi zuen, beharrezkoa dela herri guneetako saltoki txikiak mantentzea eta bultzatzea, eta herrietako azokak berritzea eta mantentzea. "Europako herri eta hiriburu asko lehengora, tradizionalera bueltatzen dabilta", esan zuen.

Arantza Arantzabal Ibai-Arteko presidentea, berriz, zera adierazi zuen egueneko jardunaldiaren ostean: "Komertzio txikiak Arrasate moduko herri batean duten garrantzia nolakoa den ikusi arazi nahi diogu jendeari, eta herria hil aurretik zaindu egin behar direla".

Arantza Arantzabal. MIREN ARREGI



Urrian aterako da eta abantaila ugarirekin

Arantzabalek adierazi digu, pozik daudela orain arte lortutako erantzunarekin: 1.000 pertsona inguru dira orain arte txartela lortzeko eskaera bete dutenak. Txartela eskuratzeko duen abantailak izango ditu: deskontuak, erosketak finantzatzeko aukera, puntuen truke opariak...

Gainera "funtzionatzen hasi eta lehen hilean txartelarekin erosketak egiten dituztenek %5eko beherapena izango dute", adierazi du Arantzabalek. Txartela urria hasieran ateratzea espero dute.

Urko Lopez > MUko irakaslea

"Landu dudanaren inguruan ez dago euskaraz askorik"

J.Z. > BERGARA

Urko Lopez, Mondragon Unibertsitatean Enpresa Zientzien Fakultatean irakaslea da. Irailaren 12an euskaraz egindako doktore tesia aurkeztu zuen Sarri-kon: **Teknologia eta Berrikuntza Euskal Autonomia Erkidegoko Berrikuntza Sistemaren baitan: Analisi Empirikoa Sektore Aero-nautikoan.**

Gutxi dira euskaraz egiten diren tesiak. Zergatik euskaraz tesia? Zailtasunik izan duzu?

Barrutik zerbaitek eskatzen zidan tesia euskaraz egitea. Tesia euskaraz egitean, ekarpen zientifikoa izateaz gain, ekarpen kulturala izatea ere nahi nuen. Zailtasunei dagokienez, euskarazko materialen falta eta terminologia teknikoaren aldetik gabeziak ikusi izan ditut nagusiki, landu dudan gaiaren inguruan ez baitago euskaraz gauza askorik idatzita.

Zergatik erabaki zenuen teknologia eta berrikuntzaren gaineko tesia egitea?

Arrazoi asko daude. Teknologia eta berrikuntza lehiakortasunerako giltza gisa izan dira hartuak azken hamarkadetan. EAEn azken hamarkadetan berrikuntza sistema eratzeko orduan lan erraldoia egin da. Aeronautika profil berritzaile altuko sektorea da eta azken bi hamarkadetan garrantzia esanguratsua izan du Euskal Elkarte Autonomoan.

Beste herrialdeekin alderatuz zein da Euskal Herriko berrikuntza sistemaren osasuna?

Erdibidean gaudela esan daiteke. Hainbat lorpen garrantzitsu izan arren, puntako herrialderen eta eskualderen atzetik goaz zenbait adierazleri dagokienez: esate baterako, I+Gko gastuak Barne Produktu Gordinean (BPG) duen garrantzia.

Nazioartean lehiakide berriak agertzen diren heinean, berritzeko beharra gero eta handiagoa da edozein sektoretan eta ez du balio esatea: "hau beti egin izan dugu hone-la eta ondo joan zaigu".



Irudian, Urko Lopez.

SUSANA AZPILIKUETA



Finantzaketa kuota personalizatuak

SYMS
SERVIMASA

Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO

Presoei laguntza emateko 'Loiola Etxea' egitasmoa sortu zuten jesuitek 1997. urtean. Orduetik ehunka preso pasa dira handik. Txema Auzmendi jesuitak lanean dihardu bigarren gradu eta baldintzapeko askatasuna lortzen duten presoekin azken zortzi urteotan, eta proiektuaren berri eman digu; besteak beste, etorkizuna nola ikusten duen kontatu digu.

Txema Auzmendi > Jesuita eta kazetaria

"Gizarteratzeko bidean lehen urratsa ematen laguntzen diegu presoei"

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Espetxeen Pastoralak antolatuta hitzaldia egin zuen Txema Auzmendi (Ordizia, 1949) eguaztenean, Oñatin. Espetxetik irteterakoan presoei ematen dien laguntzari buruz egin zuen berba. Hitzaldia hasi aurretik egon ginen harekin.

**Zein izan da Oñatiko hitzaldia-
ren helburua?**

Loiola Etxea izeneko proiektuaren inguruan egin dut berba. Kartzelatik irteten diren presoek gizarteratzeko hainbat arazo dituzte, eta horiei irtenbidea nola ematen diegun kontatu diet beratarutako guztiei.

**Zertan datza *Loiola Etxea*
proiektua?**

Presoak gizarteratzeko prozesuaren lehen urratsak ematen laguntzen diegu kartzelatik irteten diren presoei. Bigarren graduan dauden presoek hiru edo sei eguneko baimenak dituzte kartzelatik kanpo egoteko, baina ez dute nora joan, atzerritarak direlako edo senitartekorik ez dutelako. *Loiola Etxea* egitasmoan etxea eskaintzen diegu, eta han egiten dute egonaldia. Kanpoan egoteko baimena bukatzen zaienean, kartzelara bueltatzen dira.


Era berean, hirugarren gradura iristen direnean, eta lanbide bat ikasteko edo ikastaroak egiteko aukera dutenean, ostatu ematen diegu Loiolan.

Nola sortu zen egitasmoa?

Carmelo Belloso paular erlijiosoa konturatu zen presoen gizarteratzeko prozesuan gabezia bat zegoela, eta etxe bat alokatu zuen Intxaurrondon aldi berean hiru preso hartzeko. Orduan, Bilboko Gizakia/Proyecto Hombreko sortzaileetako bat izan zen eta droga mundua ongi ezagutzen zuen Juan Ramon Trabudua hasi zen presoekin lanean. Haren helburua nagusia zen presoen amak erakartzea, eta aste bukaeratan euren seme-alabak bisitatuz, kafea hartzera gonbidatzen zituen.

Intxaurrondoko etxean hiru urte egon ondoren, konturatu ziren emaitzak ez zirela onak. Presoak etxean elkartzen ziren, baina bakarrik bizi zirenez, kartzelako portaerak errepikatzen zituzten.

Orduan, presoak gizarteratzeko hasitako bidea aldatzea erabaki genuen, eta etxe handiagoa alokatuz, jesuitok presoekin elkar bizi behar genuela pentsa-



Txema Auzmendi, Oñatiko unibertsitatean, eguaztenean.

MIREIA BIKUÑA

HELBURUA

"Preso batzuk berriro delitua egin duten arren, gehienak gizarteratu egin dira; hori da gure helburua"

tu genuen. Jesuiten buru zen Inazio Etxartek baimena eman zigun, eta Loiola Etxea alokatu genuen. Etxe handia da lorategiarekin, eta 12 preso hartzeko tokia daukagu. Aldaketa egin genuenetik bederatzigarren ikasturtea hasi berri dugu.

Nolako balorazioa egiten

AUKERA

"Borondatea duten Martuteneko preso guztiek dute gure egitasmoan parte hartzeko aukera"

duzue?

Balorazioa ona da, duda barik. Bestalde, badakigu gurekin egon direnetako batzuk ez direla erabat gizarteratu, eta berriro egin dituzte delituak. Baina, gizarteratzea lortu duten presoekin helburuak bete ditugula uste dut.

Martuteneko preso guztiek

ETORKIZUNA

"Egitasmoarekin aurrera egiteko jesuiten komunitatea egonkorra ezinbestekoa dela uste dugu"

dute egitasmo honetan parte hartzeko aukera?

Bai, edozein delitu egin dutela ere, borondatea duten preso guztiek dute egitasmoan parte hartzeko aukera. Gu bakarrik Martuteneko kartzelara mugatzen gara, beste toki batzuetara ez garelako iristen. Astero joaten

dira hiru lagun kartzelara, eguaztenean eta domeketan, eta interesa duten presoak haiengana hurbiltzen dira informazio eske. Dena den, guztiek dute *Loiola Etxea* egitasmoaren berri.

Zenbat denbora egin dezakete Loiola Etxean?

Hirugarren gradua lortuta edo baldintzapeko askatasunarekin irteten diren presoak, gehienez ere, urte eta erdi ematen dute gurekin. Baina, baldintza batzuk bete behar dituzte gurekin egoteko: denbora horretan euren etorkizunerako proiektua landu beharko dute, hau da, lanbide bat ikasi, ikastaroak egin edo lana topatu. Gure helburu nagusia da, etxea uzten dutenean autonomoak izatea.

Bestalde, kartzelatik irtenda ere terapia behar duenak, derrigor jarraitu behar du harekin. Derrigorrez bete beharreko baldintza da.

Aurrera begira egitasmoarekin jarraitzeko asmoa duzue?

Egia esan, ez dakit. *Loiola Etxea*-rekin jarraitzeko jesuiten komunitate egonkor bat edukitzea ezinbestekoa da, eta ez dakigu gure atzetik datozen jesuita gazteek etxearekin jarraitzeko borondatea erakutsiko duten. Beste aukera bat da, zerbitzua profesionalizatzea. Horrek, noski, aurrekontua handitu egingo luke. Dena den, profesionalizatu ere, zerbitzua ematen duen artean begi onez ikusiko dugu.

Bukatzeko, *Egunkaria*-ren aurkako sumarioan auzipetuta zaude. Ze egoratan zaude orain?

Bost urte eta erdi pasa dira 2003ko otsailaren 20tik, eta une honetan epaiketa egiteko deia zain gaude. Auzipetuok uste genuen udazkenean egingo zigitela epaiketa, baina, badirudi udaberri aldera izango dela. Zain gaude.

Dena den, bukatzeko gogoak daukat. *Egunkaria*-ren aurkako sumarioa PP gobernua zegoeneko da; eta orain Alderdi Sozialistak hartu behar du erabakia. Ez da erabaki erraza, hurrengo urtean hauteskundeak daudela kontuan hartuta.

Dena den, Madrilen hartuko duten erabakiaren beldur naiz. Auzitegi Gorena politikaren zerbitzura dago, eta Euskal Herriarekiko justiziarik ez duela egiten iruditzen zait.

oharrak eta deialdiak

BERGARA > Alderdi Eguna joateko autobusa

EAJk hilaren 28an ospatuko du Alderdi Eguna, Forondan. Bergarako EAJk jakinarazten du hara joateko autobusa egongo dela -09:00etan irtengo da autobus geltokitik- eta Bergarako txosnan bazkaria emango dutela. Izena emateko, deitu batzokira (943 76 47 00).

ARRASATE > Epaimahaiko Auzotegirako hautagaiak

Arrasateko BAZen badaude ikusgai Epaimahaiko Auzotegirako hautagaien zerrendak, irailaren 24a arte. Jendeak erreklamazioak egiteko aukera du. Zozketa irailaren 26an izango da, Donostiako Auzitegian.

BERGARA > Gazteria Plana azalduko diete gazteei

Bergarako Udalak Gazteria Plana azalduko die herriko nerabeei eta gazteei etzi, eguazte- na, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:00etan. Urriaren 1ean, helduei eta gazteekin lan egiten dutenei azalduko diete.

ARRASATE > Odol-ateratzeak egingo dituzte egunotan

Herriko odol emalei dei egiten diete odol-ateratzeetarako: hilaren 24an eta 25ean, eguazte- na eta eguena, osasun

etxean, 16:30etik 20:00etara bitartean.

ARRASATE > Espetxe Pastoraltzaren hitzaldia, egunean

Espetxe Pastoraltzak hitzaldia antolatu du egunerako, hilak 25, Arrasateko Kulturaten, 18:00etan. Arantxa Azkuek egingo du berba. *La reaccion de Jesus ante un preso* da hitzal- diaren izenburua.

ARETXABALETAKO > Odol-ateratzeak egingo dituzte bihar, martitzena, osasun zentroan, 16:00-20:00.

Hurrengo hilaren 29an izango da, leku eta ordu- tegi berean.

ARRASATE > Alkartetxearen 22. urteurren ospakizuna

Arrasateko alkar- tetxearen 22. urteurren- a ospatuko du EAK hila- ren 27an, zapatua. Meza

entzungo dute 12:00etan, eta bazkaria 14:00etan. Izena emateko, joan alkartetxera edo deitu 943 71 27 88 telefono zen- bakira.

ESKORIATZA > Erretiratuei omenaldia egingo diete

Omenaldia egingo diete 65 urtetik gorako- ei urriaren 5ean, eta par- te hartzeko izena eman behar da irailaren 26a baino lehen, erretira- tuen bulegoan, 11:00eta- tik 12:30era bitartean.

ARETXABALETAKO > Loramendi elkarteak, lau ikastaro egingo ditu

Loramendi euskara elkarteak lau ikastaro antolatu ditu udazke- nerako: bonsaien bir- landatze eta mantenua; eskal dantzen oina- rrizko ikastaroa; esku- lanak; eta kakorraz- lan, patchwork, puntu eta bordatua. Argibide- akhonako zenbakian: 943 77 09 70.

ESKORIATZA > Emakumeendako bost ikastaro, Amuskarekin

Emakumeei zuzendu- tako bost ikastaro anto- latu ditu Amuska elkar- teak. Olio margoketa; eho- ziri-lanak eta bainika; eskulanak; patchwork; eta antzerkia. Urrik urtarrilera arte izango dira. Bazkideek 30 euro ordaindu behar dute (15ean, antzerkia) eta gai- nerakoek, 40 (20 euro, antzerkia). Izenemate egunak irailaren 29a eta 30a dira, kultura etxean, 18:00-19:00 ordutegian.

ARRASATE > Natur eta Sorkuntza Dinamizatzaile tailerra

Natur eta Sorkuntza Dinamizatzaile tailer eskola sortu du Txatxili- purdik, kultura, aisi eta turismo jardueretan natura eta sorkuntza ekintzak lantzeko forma- zioa emateko. Ozaetan izango dira eskolak, aza- roaren 1etik urriaren 31ra. Izenematea hilaren 26ra arte. Argibideak: 627 11 90 96 (Amaia) / 637 05 01 46 (Elena).

ARRASATE > Jabetze eskolan izena emateko aukera

Emakume Txokoa- ren eskutik, emakume- endako jabetze eskola izango da. Lau ikastaro izango dira, emakumeen parte-hartze soziopoliti- koa eta kulturala bultzat- zeko. Izenematea zaba- lik dago Emakume Txo- koan hilaren 26a arte (943 79 41 39).

etxeko leihotik



Inazio Arregi > zuzen@goiena.com

Kutxa eta politikakeriak

Krisia sakonenean dugula iritsi zaigu kutxen fusioaren azken kapitulua. Berriki jakin dugu ere, morositateak %2tik gora egin duela Estatuan. Azken 10 urtetako mai- larik gorena. Aduiteuek diotenez, kutxek jasaten duten moro- sitatea bankuena baino dezente handiagoa da, eta ondorioz, 2009ko hirugarren hiruhilabetetako agortuak egon daitezke hainbat kutxek egindako zuzkidurak. Orduan zer?

Koiunturez gain, eragile eta tekniko askoren iritziz kutxen fusioa ezinbestekoa da kutxen bideragarritasuna ziurtatze- ko. Politikoak berriz ezin ados jarri. Ederki asko jarri ziren bai- na merkatua banatzeko. Gogora- tu bestela CNCK duela urtebete jarritako 24 milioi euroko zigo- rra merkatuak banatzearen. Oraindik ere ez duzu aurkituko BBK-ko sukurtsalik Gipuzkoan edo Vitalekorik Bizkaian. Hego Euskal herritik kanpo bai.

Arriola jaunak bateratzea gipuzkoarren interesen aurka- koa zela zioen. Ez nireak behintzat. Seguruenez kalte handia- goak jasoko ditugu guztiok ordaindu beharko dituzten 24 milioi horiengatik, fusioko galera eta arriskuengatik baino. Politi- koak, ohi bezala, euren alderdien interesak zaintzen. Noiz hasi- ko zaizkigu herritarrenei begira? Auuuuuu!

> Zuhaitzak. Deigarria da tamaina handiko ze zuhaitz gutxi dauden Arrasateko kaleetan. Hormigoia eta alumi- nioa nagusi. Nafarroa etorbideko ezki batzuk bota berri dituzte inork txistik ere egin gabe.

> Kontxan. Aurreko asteburuan Kontxako badian arraunketan ibili ziren emakumeak aipatu nahi ditut. Ikus- kizun ederra, zirrara- garrria! Ezagutzen dut tele- bistako irudiek hunkitu zuten gizonik ere.

"Oraindik ez duzu aurkituko BBK-ko sukurtsalik Gipuzkoan"

debagoiendarrak kanpoan

Amaia Ugarte > Oñati

"Gaixo psikikoek ahalik eta bizimodu arruntena eramatea da gure helburua"

JOKIN BEREZIARTUA > OÑATI
Donostian bost urtez psikologia ikasten jardun ostean, Gasteizko Santiago ospitalean dihardu lanean Amaia Ugarte (Oñati, 1983), psi- kiatria sailean. Gaitz psikikoak dituz- ten gaixoei egiten du lan eta kasu bakoitza aztertuz, gaitz horiek hobe- to ezagutzen saiatzen dira. Zinea, bidaiatzea eta lagunekin egotea gustatzen zaio. Oñatira ahal due- nean etortzen da, asteburuetan gehienetan.

Zergatik utzi zenuen Oñati Durangora joateko?

Aurten etorri naiz Durango- ra, otsailean. Orain dela urte eta erditik ari naiz lanean Gasteiz- ko Santiago ospitalean eta kilo- metroei dagokienez, distantzia antzerakoa da. Durangon amai- tzearena zorte kontua izan zen.

Erraza egin al zaizu aldaketa? Gustura zaude Durangon?

Durangon gustura bizi naiz, baina Oñatin ere oso gustura bizi nintzen. Bizitzeko lekuz aldatze- an atzean utzitakoren falta sumatzen da, normala denez. Ikasketak Donostian egin nituen eta han egindako bost urteetan hainbat lagun egin nituen. Oraindik ere, ahal dudan neurrian, Donostiara itzultzen naiz eurekin egoteko.

Bestalde, Durangok baditu zenbait abantaila; aipagarrienak merkataritza gune gehiago eta hiriburuak oso eskura daudela. Hala ere, Oñatin daukat garrant- zitsuena: nire lagunak, familia eta, finean, maite ditudan pertso- nak -laztan bat guztioi!. Egune- ro egiten dut lanerako joan-eto- rria eta Oñatira joateko astebu- ruak aprobetxatzen ditut.



A.U.

Ikasitakoa praktikan jarri

Psikologian lizentziatu eta gutxira, Gasteizko Santiago ospitaleko psikiatria taldean hartu zuten Ugarte.

Etxetik alde egitea esperientzia aberasgarria izan al da zuretzat?

Donostian ikasten izan nin- tzenean Oñatin denbora gutxi egi- ten nuen, baina aldi berean han- ka bat nuen bertan. Hala, bi han- kak Durangon jartzeko ordua heldu zenean, pena eman zidan.

Hala ere, oso argi daukat nire- zat esperientzia aberasgarria izaten diaharduela, eta uste dut hala izan beharko litzatekeela guztiondako.

Gasteizko Santiago ospitaleko psikiatria unitatean diharduzu lanean. Zein lan egiten duzu zehazki?

Gure lana, modu labur batean azaltzeko, gaitz psikiatrikoak dituzten gaixoei hainbat faktore neurtzea da. Ikertzen dihardugu- naren arabera -adierazle geneti-

koetatik hasita faktore neurologi- ko eta psikologikoetaraino-, datuak jaso, aztertu eta ondorio- ak ateratzen ditugu. Horrela, gai- xotasun hauen inguruan gehiago jakitea ahalbidetzen digu eta beraz, gaitzok hobeto ezagutzen ditugu. Helburua, azken finean, paziente- ek ahalik eta bizimodu arruntena egiten laguntzea da.

Zeintzuk dira gehien tratatzen dituzten gaitz psikologikoak?

Gure unitatean gaixo psiko- tikoekin egiten dugu lan gehien- bat, hau da, eskizofrenia eta deso- reka bipolarra duten pazientee- kin. Gaitz hauek ez dira genetikoko bakarrik eta kanpo- ko faktoreek -estresa, drogak...- eragin handia dute euren sorre- ran. Horregatik deitzen ditugu gaixotasun multifaktorialak.

kale inkesta

Krisiaren eraginik sumatu duzu inguruan?
Nola aurre egin dakioke?Loli Forcada
Langilea
Oñati

Nik oraindik ez, baina baliteke hemendik pixkatera nabaritzea, burtsa jaisten ari da-eta. Gertuan ikusiz gero hartu beharko genuke neurriren bat: oporretara ez joan edo afaltzera etxetik kanpo ez irten...

Jesus Arriaran
Langilea
Bergara

Bai, apur bat bai. Lanari dagokionez batik bat. Burdindegia daukat eta salmentak jaitsi egin dira. Lehen erosketen aurreikuspenak epe luzera egiten ziren, orain premiazkoa baino ez da erosten.

Bartolome Sanchez
Pentsioduna
Bergara

Etor daitekeenaren beldurrez jendeak gutxiago erosten duela dirudi eta nik neuk ere hartu dut neurriren bat edo beste: kapritxoetan ez dut gastatu. Beste ezer askorik ezin da egin; jan eta jantzi beharko dugu eta.

Sara Mira
Langilea
Bergara

Bai, dena garestiago dago. Lehen erosketetan gastatzen nuenarekin, orain apenas eros daitekeen ezer. Kontrolatzea da neurri bakarra: Erropa beharrezkoa baino ez erosi, kanpoan maiz ez afaldu...

zorroztailea



Jasone Mendizabal

Zelofanean bilduta

"Txakur batek ez du sekula erakarri hainbeste argazki kameraren objektiboa. (...) Egunero-egunero bisita mordoa jasotzen du. *Puppy* du izena, eta laster hamaika urte beteko dira Bilbora etorri zenetik. Guggenheimeko eraikinak ia barruko erakusketek baino bisitari gehiago erakartzen ditu".

Berria > 2008-09-20



irakurlearen txokoa

943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

DEBAGOIENA

> Pilota noizko?

Aurreko astean Jokin Etxaniz Aspeko kirol zuzendariak ASTELEHENKO GOIENKARIAn esandakoak irakurri eta gero, Arrasateko pilotazale batek zera eskatu nahi die enpresei: Debagoieneko zaleak kontuan izateko. Azkenaldian Asegarcetek eta Aspek Bergarako eta Arrasateko pilotalekuak baztertu dituztela dio eta Udalei ere arazoa konpontzeko eskatu nahi die.

ARETXABALETA

> Telefonía enpresen deiekin nazkatuta

Aretxabaleako emakume batek haserre deitu digu, telefonía enpresen deiekin gogaituta. Emakume honen arabera, astean hiruzpalau dei jasotzen ditu, hainbat telefonía enpresen partetik. Haien portaera salatu nahi du, bezeroak behin eta berriz molestatzearren. Partikularren datuekin erakundeek eta enpresek edozer gauza egin dezaketela esaten du, eta hori konpontzeko neurriak hartu beharko lituzketela.

OÑATI

> Autobus zerbitzu eskasa

Oñatiko erretiratu baten mezua jaso dugu, Oñatin dagoen autobus zerbitzu eskasa salatzen. Haren arabera, Donostiara edo Bilbora joateko adibidez, erraztasunak baino zailtasunak dituzte Oñatin eta gaur egun, erakundeek garraio publikoa bultzatzen dihardutela, lotsagarria iruditzen zaio horrela ibiltzea.

ustek uste

Irati Agirreazaldegí

San Migelak
traineruan

Joan zen domekan Donostian festa. Estropaden aitzakian Kontxako badia- ingurua jendez eta kolorez gainezka. Lehorrekoondako itsas kirol batek horrelako irrika piztea harrigarria, ezta?

Euria zarra-zarra, patroia- ren deidadarra, arraunek urarekin talka egitean aparra.

Aparra, arraunlarien liga babesten duen garagardoarena. Ez da ez beharbada traineruan sartu aurretik hartzeko onena, baina beste zerbaít baino hobeia izan daitekeena.

Izendatu gabe aipatu dut San Migela eta ziur oñatiarrei eta aretxabaletarrei jaietarako grina piztu zaiela.

Laster dator jaien trainerua gurera. Baina garagardo asko edanez gero gidatzea denon kaltera. Hala ere, gauez autobus berezirik egongo ote da?

Halaxe gertatzen zaigu gaur egun kultur kontuekin ez ezik beste hainbesterekin ere, edukia baino edukiontzia erakargarriago. Artean baino, arkitektura ikusgarrietan inbertitu behar.

Kultur programatan baino, publizitatean. Aldizkaria aukeratzekoan ere momentuko promozioak dakarren opariak liluratzeko gaitu. Kioskoan oparitzen diren erloju, poltsa eta abarren artean aukeratu eta kontxo!, *Lecturas* bat zekarren. Eroskita joan eta barazki zein bestelako jaki eta kontsumoko produktuen *packaging* distiratsuek nire desira ezkutuenak pizten dituzte. Erosketak egin ondoren, "eman plastikozko hiru-lau poltsa, mesedez!" esaten diogu kutxan dagoen lagunari. Poltsok gainera ederto datozkit zaborra botatzeko. Birziklatzen ere ikasi dut, ingurumenak kezkatzen nau. Ez nuke frogara egingo aste-betez etxean sortutako zaborra kaleko edukiontzira atera gabe bazter baten pilatzen. Etxetik irten beharko.

Hegoaldean plastikozko 800 milioi poltsa inguru kontsumitzen ei da urtero, 286 poltsa pertsona bakoitzeko. Horieta zertuk sartzen ditugun hobe ez pentsa! Poltsok desgiteko 100 urte behar ei dira eta gainontzekoak? Eskerrak instituzioen esanetan poltsok ez dutela arazo larririk sortzen ingurumenean, *Berria*-k zekarren zapatuko erreportajeak hori zioen behintzat. Horrek asko lasaitzen nau.

Tira, bukatuko ditut lerrook; dendak zabaltzeko ordua da eta banoa armairuko iazko arropak denboraldi berrikoekin ordezkatzeko *visa*-ri ke apur bat ateratzera. Erropok koloretako zelofanean bilduta eskatuko ditut.

"Aldizkaria aukeratzekoan ere momentuko promozioak dakarren opariak liluratzeko gaitu"

"Hegoaldean plastikozko 800 milioi poltsa kontsumitzen ei da urtero"

Goienkaria

Argiraratzalea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Edu Mendibil Erredaktorea Julen Iriondo, Jon Berezibar, Irati Agirreazaldegí Oinarriko diseinua Golo Arana Diseinu arduraduna Iñaki Iturbe Maketazioa Kepa Martelo Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.comORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.comARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.comPublizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.comHarpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale

ASTELEHENKO GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako aldizkariaGipuzkoako
Foru AldundiaEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako SailburuordetzaEusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> **ARRASATE**
Zabalgunea eta Uribarri:
babes ofizialeko
etxeen zozketa
Etxebideren esku > 10



> **BERGARA**
'Berriketan': euskaldun
zaharrak eta euskaldun
berriak bateratzen
dituen egitasmoa > 11



> **GATZAGA**
Diputazioko
Landagipuzkoa 32
egitasmoan parte hartuko
du Udalak > 14

ARETXABALETA > AISIALDIA

Gaztetxoek txoko berria izango dute jolaserako aste bukaeretan

ARKUPE

Atxagazte gaztelekua aste bukaeran ipini dute abian Arkupe kultura etxean

BI SOLAIRU

Sukaldea, bulegoa eta mahai-futbola daude goian; areto nagusia eta musika gelak behean

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARETXABALETA
Herriko gaztetxoek aste bukaeretan aisialdi alternatiboa eskaini asmoz Gazte Sailak abian ipini du asteburuon Atxagazte gaztelekua. "Aurrez gaztelekua Iralabarrin zegoen. Bi urtean oso ondo funtzionatu du eta 12-16 urte bitarteko-entako alternatiba da; egoteko, ekintzak egiteko eta lagunekin partekatzeko lekua. Iralabarrikoa behin behinekoa zen eta kultur etxe berrira pasatu da gaztelekua. Helburua da gazteei toki alternatiboa eskaintzea aisialdirako", esan digu Udaleko Gazte Saileko teknikari Maider Etxanizek.

Gaztelekuko begirale Maitane Alegrearen esanetan, "herriaren erdigunean egoteak joko gehiago ematen digu eta jendea gerturatzea errazagoa da".

Egubakoitzean zabaldu zituzten Atxagazteko ateak ofizialki, baina aurrez, pare bat egunez, ezagutzeko aukera izan zuten gaztetxoek. Maider Etxanizen esanetan, "harrera ona izan du. Lokal zaharrean, asteburuetan, 30 gazte ibiltzen ziren batez beste. Espero dugu berrira ere asko etortzea".

IREKIERA JAIA

Egubakoitzean gazteleku berriaren irekiera jaia egin zuten. Arratsaldean, Kurtzebarriko frontoian gaztetxoak txapak egiten, azala tatuatzen eta graffitiak marrazten ibili ziren bost begiraleekin. Aurrez gaztelekua ezagutzen zutenak batzuk eta izan zen gaztelekura lehen aldiz sartu zenik ere.



Irekiera jaian Azkaiter Pelox bakarlari bergararraren abestiak entzuteko aukera izan zuten gaztetxoek Atxagazte gaztelekuko areto nagusian.

JOSETXO ARANZABAL

Gero, Azkaiter Peloxen kontzertua izan zen Atxagazteko areto nagusian. Txalo eta oihu artean giro polita sortu zen. "Kanpoko ekintzekin batik bat iritsi nahi

genuen gaztetxoengana eta kontzertuarekin nagusitxoagengana. Erakutsi nahi dugu gaztelekuan denondako tokia dagoela", esan digu Maider Etxanizek.

Asteburuetan hiru begiralek jardungo dute txandaka. Egubakoitzean eta domeketan 16:30etik 20:30era egongo da zabalik eta zapatuetan 17:00etatik 21:00etara.

Bi solairu dauzka gaztelekuak, kolore bizidun hormak eta gazte-entako egoki gertatutako gelak. Goian, sarreran, bulegoa, sukaldea eta mahai-futbola daude. Behean, berriz, egongela, jolasteko zein lasai egoteko; eta hiru gela musika entseguetarako. Maitane Alegre begiraleak inpresio positiboa jaso du gaztelekua ikusita: "Zabala da eta ekintza ezberdin asko egiteko aukera ematen digu horrek. Sukaldea ere joko asko ematen du. Ekintzetarako eta irteeretarako dirua ateratzeko sukaldean gertatutako jatekoak saltzen ipintzea da gure asmoetariko bat, horrela, gazteak ere gehiago inplikatu dira", esan digu.

Ekintza batzuk gertu dituzte jadanik: hilabetean behin sukaldaritz saioa egingo dute, urri-rako aurreikusita daukate surf ikastaroa eta esku lanak ere egingo dituzte.

Gaztelekuaren babesean, gazteen proposamenak kontuan hartuz aisialdiaz gozatzeko txoko berri bat da Aretxabaletan.

ZERTARA ETORTZEN ZARETE GAZTELEKURA?



Erik Vidriales

"Dibertitzera eta gauza berriak ikastera etortzen gara. Jokoak egiten ditugu, puzzleak... denetarik. Gazteleku berria gustatu zait. Oso handia da eta polita eta gainera futbolina ere badaukagu. Gauza batzuk falta dira baina pixkanaka ipiniko dituzte".



Jone Valdezate

"Lehen urtea da gaztelekura etorri naizena eta dena da berria niretzat. Gustatu zait futbolina, dardoak... daudelako eta lagunekin etorriko naiz jolastera noizean behin. Gainera, euria eginez gero gaztelekuan babesean egongo gara aste bukaeretan".



Aitor Horrillo

"Lagunekin jolastera eta ondo pasatzera etortzen naiz. Lehengoarekin alderatuta joko gehiago dago eta sarriago etorriko gara. Gainera, jarraituko dugu proposamenak egiten eta espero dugu kontuan hartzea; esaterako, areto futbol edo saskibaloitxapelketak antolatzea".

ETXEBIZITZA > ZABALGUNEA ETA URIBARRIKO BABES OFIZIALEKO ETXEAK

Udalak beharrean Etxebidek kudeatuko ditu zozketak

Pasa den egueneko plenoan onartu zen zozketen ardura Etxebideren esku uztea

Etxebiderekin lankidetzaz hitzarmena sinatzeko aukera ona ikusten du udalak

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE
2007ko otsailaren 27ko bilkuran onartu eta jendurreanipini zuen Udalak Zabalgunea (Gelmako etxeak) eta Uribarri auzoko babes ofizialeko etxeen zozketa Udalak berak kudeatzeko asmoa. Orduan, udala Alokabide erakundearekin ipini zen harremanetan. Asmoa zen Alokabidek eraikin horiek eskuratzea eta alokairuan eskaintzea, baina 2008ko uztailean urte eta erdiz iraun duten elkarriketak amaitu egin ziren, inolako emaitzarik lortu gabe.

LUZAMENDU GABE EGITEKO ASMOA
Hala, pasa den egueneko osoko bilkuran erabaki zenez, etxebizitza horien zozketa Udalak egin ordez, Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen Etxebide erakundeak bideratuko ditu. Erabaki hau har-



Gelmako etxeak Etxebidek zozketatuko ditu.

JOSETXO ARANTZABAL

tzeko Udalak bi arrazoi nagusi aipatu ditu. Batetik, adierazi du, beharrezkoa dela "luzamendu gabe zozketa abian jarri eta egi-

tea". Bestetik, Etxebide erakundearekin lankidetzaz hitzarmena sinatzeko "aukera egokia" dela deritzo Udalak.

ETXEBIDEN IZENA EMATEKO

Babes ofizialeko etxeetan sartzeko baldintzak

Zabalgunea eremuko eta Uribarriko babes ofizialeko etxeetan sartu ahal izateko, eta beraz, Etxebide erakundearen izena emateko, gutxienez baldintza batzuk bete behar dira.

Baldintza hauen artean, Etxebidek jakinarazi duenez, hauek dira garrantzitsuenak: eskatzailea ezin da beste etxebizitza baten jabe izan, bere diru sarrerak urtean 9.000 eta 35.000 euro bitartekoak izan behar dira eta interesatua Arrasaten erroldatuta egon behar da, udalak zehaztutako epearen barruan. Informazio osoaren berri izateko interesatua www.etxebide.info webgunean sartu behar da.

DATUA

175

ETXEBIZITZA

Zabalgunea eremuko eta Uribarriko babes ofizialeko etxeak 175 dira guztira. Uribarri auzoan 44 etxebizitzako bloke bat eraikitzen dihardute eta Zabalgunean 131 etxebizitza egingo dituzte.

GEHIENGO OSOZ ONARTUA

Zabalguneako eta Uribarriko babes ofizialeko etxeak, beraz, Etxebidek zozketatuko ditu. Osoko bilkuran gehiengo osoz onartu zen puntua –alderdi sozialistak abstentzioa eta gainerako alderdi guztiak alde–.

Uribarri auzoan babes ofizialeko 44 etxebizitza eraikitzen dihardute eta Zabalgunea eremuan 131. Udaleko Hirigintza sailak jakinarazi duenez, etxebizitza horien obrak aurreikusitako bezala doaz eta data zehatzik eman ez badute ere, asmoa da ahalik eta azkarren bukatzea. Hor-taz, Udalaren asmoa lanei lehenbailehen ekitea da.

Bada, 175 etxebizitza hauetako batean sartzeko Etxebiden eman behar da izena. Zozketak ahalik eta azkarren egingo dituzte; aurretik interesatuek izena eman behar dute.

> PINTURA

Aurten ere 100 margo zale inguruk eman dute izena

Zapatu arratsaldeko zazpiak arte izan zen zabalik pintura ikastaroan izena emateko epea. Guztira 100 bat lagunek eman du izena pintura ikastaroetan parte hartzeko. Beraz, aurten ere arrakasta handia izan du. Bengoak 1993tik ematen ditu pintura eskolak, eta azaldu duenez, "hainbat helduk urtero errepikatzen dute, lasaigarri da euren dako". Eskolak gaur hasiko dira eta honak hauek dira ordutegiak: astelehene-tik egubakoitzera 17:00etatik 20:00etara, eta zapatuetan 11:00etatik 13:00etara.

> EPAIMAHAI AUZITEGIA

Zozketen zerrendak eguaztenera arte daude ikusgai, BAZen

Dagoeneko ikusgai daude epaimahaiko auzitegiko kide izan daitezkeen hautesleen zerrendak. Zerrendok aztertze edo erreklamatzeko Udaleko Biztanleen Arreta Zerbitzuaren bulegora hurbildu behar da interesatua. Horretarako epea eguaztenera amaitzen da, hilaren 24an.

Epaimahaian parte hartzerako behar da daudenak zeintzuk diren jakiteko jendurreko zozketa ekitaldia egingo da. Beraz, inplikatuak adi egon behar dute zozketa ekitaldiko emaitzari. Donostiako Entzutegi probintzialean izango da, irailaren 26an, goizeko hamarretan.

POLITIKA > OSOKO BILKURA BEREZIA

EAEko zinegotzi ohiek Talde Mistoan jardungo dute, oraingoz

Paco Gartzia (PSE-EE) azpimarratu zuen Udalak egiten duen Gartzonen Autoaren interpretazioarekin ez daudela konforme

U.M. > ARRASATE

Egubakoitzeko osoko bilkuran aurreikuspenak ez ziren bete, eta Estatuko komunikabide batzuk etorri arren, ez zen izan azken urtean izan ditugun plenoak bezain istilutsua. Aretoa, hori bai, bete samar egon zen; hainbat herritar izan zen-eta saioa ikusten. Dena den, lasai joan zen osokoa, nahiz eta eztabaida politikoa izan. Hain zuzen, PSE-EEko kideak izan ziren eztabaida bideratu zutenak, Tal-

de Mistoaren puntuaren harira. Izan ere, osokoa erabaki zuten behin betiko EAEko zinegotzi ohiek Talde Mistoan jardungo zutelak. Era berean, PSE-EEk erabaki horren kontra aurkeztutako alegazioak atzera bota zituzten.

Paco Gartzia bozeramaile sozialistak azaldu zuen kontra segituko dutela eta bestelako neurriak hartzeko aukera zabalik lagatzen dutela; arrazoiak ere eman zituen: "Gartzonen Autoaren aplikazioaren gainean Udala egiten dabilen interpretazioarekin ez gaude konforme. Ulertzen dugu egiten dabilzana dela, legean trankila egin Gartzonen Autoan agintzen duena ez betetzeko".

EZTABAIDA POLITIKOA

Puntu hori aprobetxatuta, Paco Gartzia sozialistak diskurtso politikoa egin zuen eta aditzera eman

zuen, labur esanda, poliziak ANV-ren muina kartzelaratu ez balu, ANVko guztiak ETAkide izango liritekeela; eta gaineratu zuen, besteak beste, Euskal Herria dela "ideiengatik jendea hiltzen duten Europako leku bakarra".

Hari erantzunez, Ino Galparsoro alkateak esan zuen arazoaren muina dela herri izanaren errekonozimendu falta, eta gogorra ekarri zion arazoa konpontzeko bide bakarra elkarrizketa dela.

Joxe Etxeberria Aralarko bozeramaileak ere erantzun zion esanez hauxe dela Europako herri bakarra "ideiengatik herritarrek kartzelaratu" dituztena; eta azpimarratu zuen larriagoa dela egungo egoera, izan ere, "kausarekin, biolentzia egiten dutenen kausarekin bat eginez gero, horiek ere zigortuak izan behar direla planteatzen dute".

HEZIKETA > GURASO ESKOLA

Hastear dago seme-alaben heziketan laguntzeko asmoz sortutako ekimena

Izen emate epea hilaren 26an amaituko da; 0 eta 16 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoei dago zuzenduta

J.B. > ARRASATE

Hilabete barru hasiko da Guraso Eskola, seme-alaben heziketan gurasoei suertatutako dakizkien kezka eta zailtasunak argitze-ko, bideratzeko eta elkarbatazko Udalak urtero antolatutako ohi duen ekimena.

0 eta 16 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoendako eskolak dira eta egubakoitz honetan amaituko da izena emateko epea. Interesatuak

hiru aukera ditu izena emateko: 943 20 20 07 telefonora deitu, prebentzio@arrasate-mon-dragon.net helbidera posta elektronikoa bidali edota izen emate orria udaleko Prebentzio Zerbitzuan –hurgarren solairuan– edo BAZen entregatu.

HIRU ADIN TALDE

Kulturaren emango diren eskola hauek hiru adin taldeetan banatuko dira, seme-alaben adinaren arabera, noski. Hala, 0 eta 5 urte artekoak eta 6 eta 11 urte artekoak dituztenak astelehene-tan elkartuko dira, eta 12 eta 16 urte artekoak, berriz, eguaztentera, denak Kulturaren. Ordutegi zehatzak gurasoek zehaztuko dituzte, eskaeren arabera. Taldeak sortu ahal izateko gutxienez hamar gurasoko taldea osatu behar da.



Joan den ikasturte bukaerako afariko argazkia.

GOIENKARIA

EUSKARA > EUSKALDUN ZAHARRAK ETA BERRIAK BATERA

'Berriketari' egitasmoa martxan da berriz ere

Euskaldun zahar eta berriak taldeka antolatzen dira euskara bultzatzeko eta zabaltzeko

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Jardun elkarteak *Berriketari* egitasmoa jarri du martxan berriz ere. Hirugarren aldiz, euskaldun zaharrak eta berriak elkartu nahi ditu taldeka, euskararen erabilera bultzatzeko eta zabaltzeko helburuarekin.

GERO ETA TALDE GEHIAGO

Hirugarren urtez antolatu du Jardunek *Berriketari* egitasmoa eta urtetik urtera gehitzen joan da partehartzaile kopurua. "Aurtengo izenemate epea zabalik dago oraindik baina lehen urtean, adibidez, 12 talde osatu ziren eta bigarrean, joan den ikas-

turtean, 15", azaldu du Maitane Arizabaletak, *Berriketari* proiektuaren koordinatzaileak. Taldeak txikiak izaten dira, gehienez ere lau lagunekoa. "Normalean, euskaldun zahar batek eta bi euskaldun berri osatzen dituzte taldeak", zehaztu du Arizabaletak.

Ikasleek, langileek, gazteek, helduek, euskaldun zaharrek zein berriek hartzen dute parte egitasmoan. Baldintza bakarra da asteen ordubetez elkartzea. "Taldea bakoitzak bere planak egiten ditu: paseatzera joan, kirola egin, Aroztegiko erakusketa ikustera joan...", dio Jarduneko Maitane Arizabaletak. Talde bakoitzak

egiten dituen hitzorduez gain, urtean zehar hainbat ekitaldi antolatzen dituzte partehartzaile guztiendako, adibidez: kultura irteerak, mendi ibilaldiak edo afariak.

TOPAGUNEAN SARTUTA

Jardunek antolatzen duen *Berriketari* egitasmoa Topagunean dago sartuta. Horrela, urtean behin, egun osoko irteera bat egiten dute Euskal Herriko beste herri batzuetako partehartzaileekin batera, herri ezberdinetako berba lagunekin batera.

Berriketari egitasmoan parte hartzeko izenemate zabalik dago. Jarduneko bulegoetan edo telefonoz eman daiteke izena. Hauxe da telefono zenbakia: 943 76 36 61.

Ikasturte berriko lehen eskola kirol jaia egin dute

Ikasturte berriko lehenbiziko eskola kirol jaia egin zuten zapatu goizean Labegarietako kiroldegian herriko ikasleek.

Lehenengo mailatik seigarren mailara bitarteko gaztetxoek kirol eta joko ezberdinak ezagutzeko eta egiteko aukera izan zuten. Hauexek dira egin ahal izan zituzten kirolak: piraguismoa, eskalada, hockey-a eta badmintona. Jaia Eskola Kirol Kontseiluak antolatu du, kirol elkarte batzuen laguntzarekin.



JOSETXO ARANTZABAL

MUSIKA > IKASTAROA

Musikoterapia tailerra antolatu du Musika Eskolak

Irudi Gidatua eta musika metodoaren ezagutza irakatsiko du Aintzane Arana musikoterapeutak Musika Eskolan

O.E. > BERGARA

Bergarako musika eskolak musikoterapia tailerra antolatu du urritik abendua bitarteko. Ikastaro horren helburua da Hellen Bonny-k 1960ko hamarkadan sortu zuen Irudi Gidatua eta Musika metodoaren esperientzia ezagutzeko.

MUSIKOTERAPIA

Musikoterapiaren ikastaro horren teknika musika klasikoak pertsonari gogora ekartzen dizkion irudietan oinarritzen da, barne sentimenduak sortuz eta pertsonaren osasuna sendotzeko beharrezkoa den sormen prozesua piztuz.

Horrela, hauexek dira ikastaro horren edukiak: musikoterapiaren teknika pasiboak; irudi gidatua eta musika metodoaren historia, azalpena eta osagaiak; saio praktikoak eta metodoaren erabilerak.

Musikaren ahalmen osasungarria baloratzea eta hurbiltze eta harreman aukera berriak eskaintzea dira, hain zuzen ere, ikastaro horrek lortu gura duen helburuetako bat.

URRITIK ABENDURA

Musikoterapiaren ikastaro hori datorren hilabetean hasiko da. Urriaren 14tik abenduaren 2ra bitartean eskainiko dute, martitzenetan 19:30etik 21:00era, Bergarako Musika Eskolan. Irakaslea Aintzane Arana da, pianoan diplomatua eta irudi gidatua eta musikan espezializaturiko musikoterapeuta.

Ikastaroan izena emateko epea urriaren 7a arte egongo da zabalik. Plazak mugatuak dira. Ikastaroaren prezioa 50 euro da. Argibideak: 943 76 57 80.

> GAZTEAK

Gazteria Plana aurkeztuko die Udalak herriko gazteei eta helduei osoko bilkuren aretoan

Gazteriaren aldeko plangintza onartu du Udalak eta horren berri herritarrei eman gura die. Horretarako, plangintzaren jende aurreko aurkezpenean egingo dute udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Datorren eguaztenean, irailak 24, herriko nerabeei eta gazteei zuzendutako aurkezpene izango da, 19:00etan. Urriaren 1ean, helduen eta gazteekin lan egiten duten profesionalen aurrean egingo dute, ordu eta toki berdinean. Gazteen ohiturak, Udalaren asmoak eta gazteen nahiak jasotzen ditu Gazteriaren Planak.

> UDALA

Herriko auzoek protagonismo gehiago izango dute datorren urteko udal egutegian

Bergarako Udalak, 2009an ere egutegia ateratzeko asmoa dauka eta dagoeneko zabalik dago argazkiak eta publizitatea argitaratzeko epea. Egutegia 2008koaren tankerakoa izango da, baina aurtengo herriko auzoek protagonismo gehiago eskaini nahi zaie. Egutegian erabiltzeko aukeratutako argazkiak ordaindu egingo dira eta aukeratutakoak Udal Artxibategian jasota geldituko dira. Argazkia bidaltzea gura duenak, urriaren 20a baino lehen egin behar du. Informazio gehiago, Euskara Zerbitzuan: 943 77 91 79.

> GIZARTE ZERBITZUAK

Adineko ezinduek zaintzen dituzten senideendako prestakuntza ikastaroa dago

Adineko ezinduek zaintzen dituzten familiendako prestakuntza ikastaroa antolatu du Udal Gizarte Zerbitzuek, Sendian programaren barruan. Ikastaroaren izenburua zera da: *Zaintzailearen higiene posturala. Mobilizazioa eta transferentziak*. Herriko erretiratuen etxean, San Joxepen, emango dute ikastaro hori datorren astean, irailaren 22an eta 24an, 15:00etatik 18:00etara bitartean. Ikastaro horri buruzko informazio gehiago Udako Gizarte Zerbitzuetako bulegoetan eskatu dezake interesa duen edonork. Hauxe da telefonoa: 943 77 91 65.



Argentinarako elkartasun taldearen lokala materialez gainezka dute eta mugitzeko arazoak dituzte

MIREIA BIKUÑA

Argentinara bidaltzeko 22. edukiontzia prestatzeko tokia behar dute lokalean eta ez dute material gehiago jasoko urri bukaera arte

ELKARTASUNA > EZ DUTE MATERIALA JASOKO

Argentinarako material bilketa eten egin dute urri bukaera arte

M.B > OÑATI

Argentinarako elkartasun taldeak material bilketa etetea erabaki du. Hortaz, ez du material gehiago bilduko urri bukaerara arte. "Une honetan, Argentinara bidaliko dugun 22. edukiontzia prestatzen gabiltza. Lokala materialez gainezka dugu, eta mugitzeko arazoak ditugu. Hortaz, oraingoz material gehiago ez jaso-

zteza erabaki dugu. Dena den, beste behin eskerrak eman nahi dizkiegu materiala ematen diguten herritar guztiei", esan digu elkartasun taldeko Jose Antonio Urteagak. Era berean, lokalaren kanpoan dagoen edukiontzi zuria zigilatuta dute.

Armairuak aldatzeko garaia denez, arropak gordeta dituztenei eskaera berezia egin nahi

diete: "Ahal badute urrira arte gordetzea eskatuko genieke; baina, posible ez dutenek, Mankomunitateak herriko hainbat tokitan dituen edukiontzi zurietan uzteko aukera dute".

EGUAZTENETAN ETA EGUNETAN

Prestatzen dabiltzan 22. edukiontzian arropak, jostailuak, liburuak, oinetakoak eta oihalak

bidaliko dituzte, besteak beste. Materiala hartzen ez duten arren, eguaztenero eta eguenero egoten dira lokalean materiala antolatzen, 18:30etik 20:30era.

Argentinara bildatzen dituzten edukiontziak prestatzen 30 bat lagunek dihardute: 15 lagunek lokalean egiten dituzte prestaketa lanak, eta gainerako 15ek beste lan batzuk egiten dituzte.

> IKASKUNTZA

Hilaren 30era arte eman daiteke izena Txiki Txokon

Txiki Txoko haurreskolak zabalik du 2008-09 ikasturterako matrikulazio epea, azaroan, abenduan, urtarrilean eta otsailean eskolan hasi gura duten umeendako. Hain zuzen ere, 0-1 eta 1-2 urteko geletan egongo diren haurrendako izenemate epea zabaldu dute: zortzi ume hartuko dituzte 0-1 urtekoen gelan; eta 23 ume 1-2 urteko gelako bakoitzean.

Izena eman edo informazioa eskatu gura duten gurasoek hilaren 30a baino lehen joan beharko dute eskola orduetan bulegora; hau da, 10:30etik 11:30era eta 16:30etik 17:00etara arte; edo bestela, 943 71 64 05 telefonora dei dezakete.

> DEIALDIA

Aloña abesbatzak gizonezkoen ahotsak behar ditu

Pake Leku erretiratuen elkarteko Aloña abesbatzak deialdi berezia egin du egunotan; alegia, gizonezkoen ahotsak behar dituzte. "Emakume asko ditugu, baina gizonezko gutxi. Hortaz, dei berezia egin nahi diegu", esan digute abesbatzako kideek. Interesatuak erretiratuen elkarteko zuzendaritza batzordeko kideekin edo abesbatzako kideekin jarri behar dira hartu-emanetan.

Bestalde, erretiratuen elkarteak antolatuta hitzaldia egingo dute bihar. Hain zuzen ere, Kutxako kide Jose Luis Martinek etxean sor daitezkeen arriskuei buruz egingo du berba. Hitzaldia Pake Lekuren egoitzan egingo du 19:00etan.

> ERAKUSKETA

Corpus eguneko irudiak ikusgai, urriaren 26ra arte

Corpus eguneko irudiak biltzen dituen erakusketa ikusgai dago parrokiako klaustroan, urriaren 26ra arte. Besteak beste, prozesioko 16 pausuak, palioa, dantzarien eta santuen arropak daude ikusgai. Sarrera doanekoa da bisitari guztiendako. Erakusketa aste bukaeratan eta jaiegunetan zabalitzen dute: zapatuetan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:30era; eta domeketan eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Era berean, San Migel eta Errosario jaietako egun berezietan zabalduko dute, jaiegunetako ordutegiarekin: hain zuzen ere, irailaren 29an eta 30ean, eta urriaren 6an.

Olaiturri aste bukaeratan bakarrik izango da aparkaleku

Aurrerantzean, Olaiturriko aparkalekua aste bukaeratan zabalduko dute autoendako. Hain zuzen ere, egubakoitzeko 17:00etatik astelehen goizera arte utz daiteke autoa han. Erdigunean neska-mutikoendako jolas leku gutxi dagoela eta, zenbait gurasok egindako eskaera onartuz erabaki du Udalak Olaiturri bakarrik aste bukaeratan zabaltzea.



M.B.

ARETXABALETA-ESKORIATZA > EUSKARA

Gurasoendako euskara ikastaro bereziak prestatu dituzte berriro

Bidelagun egitasmoak bi ikastaro mota aurreikusi ditu gurasoendako

MIRIAN BITERI > ARETXABALETA

Aurten ere Bidelagun izeneko egitasmoa ipini dute abian Eskoriatzako eta Aretxabaleako udalek, ikastetxeek eta eskolentzaren elkarlanean. Gurasoendako euskara ikastaro bereziak antolatzear datza egitasmoa.

Horien helburua da oinarrizko hizkuntza kontzeptuak bere-

ganatzea eta horrela seme-alaben ikas prozesuan parte hartzeko aukera handiagoa izatea. Aldi berean, seme-alabak ikastetxeko ekintzetan lagundu ahal izateko gauzatu da Bidelagun. Irailaren 30era arte dago izena emateko aukera.

BI IKASTARO

Bi ikastaro mota izango dira: euskararik ez dakitenendako eta hizkuntza menperatzen dutenendako. Lehenengoak urritik maiatzera bitartean iraungo du. Eskolak astean lautan izango dira eta eskolek ordu eta erdiko iraupena edukiko dute.

Horretan, esaterako, haurren jolasak, abestiak edo ipuinak; agurrak eta ohiko esamoldeak; telebistako haur programen oinarrizko hiztegia eta pertsonaiak; eta urtaroak, hilabeteak, egunak, zenbakiak edo koloreak ikasteko aukera izango dute gurasoek.

Euskara dakitenendako ikastaroa, berriz, motzagoa izango da: urritik azarora bitartekoa, hain zuzen; astean bitan, ordu eta erdiko saioekin. Horietan euskaraz egiterakoan ohiko akatsak zuzentzeaz, ahozko jarduna hobetzeaz eta eskolako hiztegiak jardungo dute.

Eskolen egunak oraindik zehazteke daude; izena ematen dutenekin adostuko dira. Ordu-tegiari dagokionez, bi egingo dira aukeran: 14:30etik 16:00etara eta 18:30etik 20:00etara. Bakoi-tzarendako egokiena den ordu-tegia aukeratu ahal izango da. Leintz Euskaltegian izango dira eskola guztiak.

MATRIKULA

Bestalde, urritik maiatzera arteko ikastaroak 194,80 euro balioko du, materiala barne. Ikastaro bukaeran, baina, beka sistema egongo da eta matrikularen %60 jaso ahal izango dute ikastaroan parte hartzen dutenek. Urritik azarora bitarteko eskolentatik, berriz, 22,40 euro ordaindu beharoko dira.

Eskoriatzako eta Aretxabaleako ikasleek egitasmo horren gaineko informazioa duen orria jaso dute egunotan ikastetxeetan. Hala, interesatuta dauden gurasoek, orri horretako azpiko fitxa bete beharoko dute eta haurraren tutoreari eman, datorren irailaren 30a baino lehen. Informazio zehatzagoa nahi duenak tutorearengana jo dezake.

> ARETXABALETA
Berbaldia eta tailerrak egunean, Arkupen

Bi ekimen hartuko ditu egunean, hilak 25, Arkupek. Kultura etxeko liburutegian haurrendako tailerrak izango dira, 18:00etan. Bestalde, gaur egungo gizartean sexuak duen garrantziaren gaineko berbaldia izango da, 19:30ean. Kotte Susperregik egingo du esandako berbaldia.

> ARETXABALETA
Katekesiari hasteko bilerak egingo dira asteon

Agustindarren monasterioan 3. mailakoak elkartuko dira: gaur eta bihar haurren txanda izango da, 17:00etan; eta eguaztenean gurasoena, 18:00etan. Gainerako taldeenak parrokiaren izango dira, 18:00etan: egunean 2. mailako ikasleek gurasoekin eta barikuan, 1. mailakoekin.

> ESKORIATZA
Ur-kontagailuen irakurketarekin dihardute egunotan

Joan den irailaren 15etik Eskoriatzako etxeetako ur-kontagailuen irakurketak egingo dihardute, urteko hirugarren hiruhilekoko ordainagiriak prestatzeko. Barikuan, irailak 26, amaituko dute zeregin horrekin. Irakurketa ordua 08:30etik 15:00etara bitartean izango da.

> ESKORIATZA
Erretiratuen bazkaria: izenematea barikura arte

Urriaren 5ean, domeka, omenaldia egingo diete 65 urtetik gorako eskoriatzarrei. Bazkarian izena eman gura duenak barikura arte dauka epea, erretiratuen bulegoetan, 11:00etatik 12:30era. Udal pilotalekuan egingo den bazkariaren truke 5 euro ordaindu beharoko dituzte.

ESKORIATZA > EZ OHIKO OSOKO BILKURA

Kuatrenan eta Aranburuzabalan etxebizitza sozialak egitea onartu du udalbatzak

Kuatrenako eremuko plan partziala aldatzea aho batez onartu zuten udalbatzarrean

Aranburuzabalako planarekin jarraitutako prozesua kritikatu zuen EB-Berdeak taldeak

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Joan den egunean ez-ohiko bilkura egin zuten udaletxean, Aranburuzabala eta Kuatruena eremuetan egin gura dituzten etxebizitza sozialak gainean jarduteko, besteak beste.

Udalbatzak Kuatruenako plan partziala aldatzea onartu zuen aho batez. Orain arte etxe pribatuak egiteko aukera egon da Gatzagako bidean dagoen eremu horretan. Eguenean onartutako aldaketekin 40 etxebizitza sozial eraiki ahal izango dira.

Aranburuzabala areako barne-erreformarako plan berezia, bestalde, eztabaidatsua izan zen. Jakina denez, Aranburuzabala kaleko goialdean etxebizitza sozial gehiago egiteko asmoa du Udalak. Hala, Aingeru-Guarda gasolindegia inguruan, Tesa enpresaren parean, 40 etxebizitza egin gura dituzte orain enpresa eta etxe zahar bana dauden tokian. Gainera, Udalak erreka



Kuatruena eremuan etxebizitza sozialak egitea onartu du Udalak.

M.B.

zati bat estalgabetu eta hor parke bat egin gura du.

EB-BERDEAK, KONTRA

Eremu horretako planak EAJ, PSE eta udal gobernuan dauden zinegotzien aldeko botoa jaso zuen; EA abstenu egin zen eta EB-Berdeak plan horren kontra azaldu zen. Azken talde horretako zinegotzi Juan Luis Merinok gai horretan udal gobernuak izandako jarrera salatzen zuen.

Batetik, Merinok prozesuaren amaieran izandako presa aipatu zuen. Hala, gogorazi zuen behin behineko onarpena uztailean egin zela eta alegazioak aurkezteko epea abuztuazabaldun zela. Horretaz aparte, zalantzan jarri zuen eremu horretan egingo diren etxeak tasatuak izango diren; izan ere, plan bereziak libreak aurreikusten ditu. "Sustatzaileen onurarako egindako plana dirudi", esan zuen.

Pedro Lasagabaster alkateak erantzun zion egingo diren etxebizitzak tasatuak izango direla. Alkatearen ustetan, "ikuspegi urbanistikoa eta sozialetik, herriari egingo dio mesede". Gaineratu zuen bi urtetan gura dutela plan hori garatzen hastea.

Azkenik, Santa Marina esparruan egin behar dituzten etxebizitza libreen arteko distantziak eta mailak adostea onartu zuten aho batez.

IRIARTE

Umeen denda
Helduen lentzeria



Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA



Urtero egiten dute egun osoko motor gaineko ibilaldia Antzuola Motor Taldeko kideek.

GOIENKARIA

ANTZUOLA > AISIALDIA

Motor zaleen irteera urriaren 5ean izango da

Bizkaian barrena ibiliko dira batik bat eta kostaldeko hainbat txoko pasatuko dituzte

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Antzuola Motor Taldeko kideek irteera gertatu dute urriaren 5erako. 09:00etan herriko plazan elkartuko dira eta orain dela gutxi hil den taldeko kide Iñaki Alkortaren omenez minutu bateko isilunea egin ostean, martxan ipiniko dituzte motorrak.

Zumarraga alderako bidea hartu eta Aizpurutxotik eta Azkoititik pasatuta Azkarate eta San Migel mendateetan barrena Bizkaia aldera joko dute. Etxebarri, Markina, Bolibar, Munitibar, Aulesti eta Gizaburuaga

pasatu eta gero Lekeitiora iritsiko dira. Portuan bueltatxo bat eman eta gero hamaiketako egingo dute Itxas Alde tabernan.

Gidariak eta motorrak gasolinaz bete eta berriz abiatzeko gertu izango dira motor zaleak. Bizkaiko hainbat txoko igaroko dituzte: Ispaster, Ea, Ibarrangelu, Elantxobe, Gauteziz-Arteaga, Kortezubi, Gernika, Forua, Murueta, Busturia, Sukarrieta, Mundaka, Bermeo eta Gaztelugatxe. 13:00etarako aurreikusitako hara iristea eta argazkia aterako dute denak ailegatutakoan.

BAZKARIA MUNGIAN

Gero, Mungiarako bidea egingo dute Bakio, Lemoizko zentral nuklearra, Plentzia, Maruri eta Larraurin barrena. Fonda jate-txean egingo dute bazkaria eta bueltan Gamiz-Fika, Larrabetzu, Zornotza, Durango, Izurtza, Mañaria, Urkiola eta Otxandio pasako dituzte.

Olaetan freskagarri bana hartu eta Kruzeta gainetik, Aramaio, Arrasate eta Bergara atzean utzita 19:00etarako Antzuola iristea da asmoa, 300 kilometro inguru egin ostean.

Irteeran parte hartu nahi duten motor zaleek Mujika harategian eman behar dute izena hilaren amaiera baino lehen.

ELGETA > KANPANDORREKO ERLOJUA

Astebete pasatxo da atzera ere martxan dela, Sueskun anaiek konpondu zutenetik

Pedro Sueskun: "Ez genion matxura konkreturik antzeman. Dena desmuntatu, garbitu eta atzera ere muntatu egin genuen"

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Hilaren 12an, duela astebete pasatxo izan ziren Elgetan Sueskun anaiek. Tamaina handiko ordulariak konpontzen dituzte eta Elgetako kanpandorreko ordulariak matxuratuta hilabete zeramalak deitu zituen Udalak.

Denbora behar izan zuten, baina azkenean martxan ipini zuten ordularia. Kanpaiek astebete pasatxo daramate zintzo-zintzo ordu laurdenak, erdiak eta puntuak ematen.

"Ez duzue sinistuko, baina guk geuk ere ez dakigu zehatz-mehatz zer zeukan", adierazi du Pedro Sueskunek. "Bost urte dira ordulari hori berritu zela eta normalean da arazo txiki batzuk ematen hasia. Ez genion matxura zehatzik antzeman eta dena desmuntatu, garbitu, ondo koipeztatu eta atzera ere muntatzea erabaki genuen. Antza, azterketa txiki bat besterik ez zuen behar", esan du Sueskunek.

ORDULARIA EGOERA ONEAN

Sueskun anaiek ordulariaren mantenuaz arduratzen diren udal langileen lana goraiatu dute.

"Esan beharra daukagu ordularia oso egoera onean aurkitu dugula", adierazi du Pedro Sueskunek. "Egia da oso ondo zigilatutako kutxa batean aurkitzen dela eta ez dela bertara batere hautsik sartzen, baina arduradunek zilarra bezain garbi daukate. Garbi eta neurrian koipeztatua".

Anaia eta biek ezuste atsegin hartu zutela adierazi du. "Guk geuk zainduko bagenu ordularia ez zen egoera hobean egongo, benetan!".

LEINTZ GATZAGA > LANDA GARAPENA

Landagipuzkoa 32 egitasmoko laguntza deia egin dute

Urriaren 30era bitartean izango du Gatzagako Udalak zein proiektu egin gura dituen erabakitze eta dirulaguntza eskaera egiteko

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Maiatzean aurkeztu zuen Aldundiak Landagipuzkoa 32 egitasmoa, 1.000 biztanletik beherako herriei laguntzeko. Eta joan zen astean dirulaguntza eskaerak egiteko deialdia argitaratu zuen. Egitasmo barruan dauden Gipuzkoako 32 herri –tarteetan Gatzaga– daukate aukera Aldundiak egindako deialdira aurkezteko. Urriaren 30ean bukatuko da eskaerak egiteko epea.

Landa Ingurunearen Garapenerako departamentuak 3.100.000 euro bideratu ditu

egitasmora. Batez ere bi eratako proiektuak garatzeko izango da dirua: urak bideratzeko eta herrietako bideak konpontzeko edo berriak egiteko. Hala, Gatzagako Udalak hainbat proposamen ditu: baserrietara dauden sarrerak konpontzea, tartean Gatzagain ingurukoa, eta Gaztainuzketa mendiko etxeetan urarekin duten arazoari irtenbidea topatzea. Gastuaren %80 finantzatu du Aldundiak –150.000 eurora arte– eta 2009ko abendua bitartean bukatuta izan beharko dituzte lanak udalak.



Dominaga baserrira doan bidea iaz konpondu zuen Aldundiak.

MIRARI ALTUBE

ARAMAIO > HONDAKINEN KUDEAKETA

Pozik hondakinen kanpainarekin

Antolatzaileak pozik daude kanpainak izandako erantzunarekin; erakusmahaitik, esaterako, 100 lagunetik gora pasa ziren joan den astean

MIRIAN BITERI > ARAMAIO

Joan zen astelehenetik bari-kura bitartean Arabako Diputazioaren Hondakinen Kudeaketa Plana hedatzeko kanpaina izan zen Aramaion. Antolatzaileak pozik daude *Ekiozu!* izena duen sentikortze-kanpainak herrian izandako harrerarekin.

Hondakinen kudeaketaren arazoa ezagutzera ematea eta hondakin kopuruak jaistea izan zuten helburu kanpaina horrek. Horretarako, plazan erakusmahai bat jarrita egon zen. Iraun zuten bitartean, 100 lagunetik gora pasa ziren handik.

Goizetan nagusien bisita izan zuten plazan bereziki. Eguenarratsaldean, baina, plazatik parkera eraman zuten. Gurasoek eta haurrek izan zuten orduan ikusteko aukera.

Udalbatza aretoan erakusketak izan zuten. 2006an abian ipinitako Hondakin Kudeaketa Plana ezagutzeko aukera izan zuten horrela aramaioarrek. Barikuan, azkenik, hondakinak behar bezala birziklatzearen gainera zalantzak argitzeko tailerra egiteko zen. Baina jende gutxi eman zuten izena eta ekimen hori bertan behera utzi zuten antolatzaileek.

Kirola



> FUTBOLA
Aloñak irabazi,
UDAK berdindu eta
Mondrak galdu 2.
jardunaldian > 16



> PEKINEN
Rafa Mungia
kazetaria Pekinen
izan da Paralinpiar
Jokoetan > 21

> ELKARRIZKETA
Bergarako
Ariznoa
Gimnasia
Erritmiko
taldea hasi da
denboraldi
berria
gertatzen.
Susana
Corredera
entrenatzaileari
elkarrizketa > 22



AUTOMOBILISMOA > ARAMAIOKO VII. RALLYSPRINTA

Apalantzak 'veni, vidi, vici': azken orduan iritsi eta irabazi

Autoarekin arazoak izan, berandu iritsi, baina antolatzaileen baimen bereziarekin korritu ahal izan zuen

Erretiroko egunean, bere zaleen aurrean, bigarren egin zuen Errasti aramaioarrak bere klasean

JULEN IRIONDO > ARAMAIO

Borobila. Horrelakoxea atera zen zapatuan Aramaioko Rallysprintaren VII. edizioa: kirol arloan inoizko parte-hartzerik onena, zaleen erantzuna bikaina, eguraldi ederra eta bidea egoera onean, lehia ikusgarria gidarien artean eta istripu gutxi batzuk bai baina min hartutakorik ez. Borobila.

Lehenengo txandatik geratu zen argi ze auto eta gidari izango ziren garaipenerako lehian, espero zitezkeenak. Are gehiago, amaieran ikusi zen lehenengo txandatik ikusi zitekeela zein izango zen azken sailkapena aurreneko postu horietan: izan ere, aurreneko bostek lehenengo txanda amaitu zuten postuetan amaitu zuten lasterketa ere. Ez zen aldatarik egon, izan ere, lehenengo bost sailkatuak hurrenkera berean errepikatu ziren bigarren eta hirugarren txandetan ere.

Iazko irabazle Santi Artetxe izan zen lasterketa hasi zuena, bere Peugeot 307 WRC-arekin. Lau minutu eta zazpi segundo behar



IKUSKIZUNA Porsche hau bezalako auto ikusgarriek jende ugari erakarri zuten Aramaioko Rallysprinterera.

JOSETXO ARANTZABAL

izan zituen 6,7 kilometroko bidea egiteko. Hortxe, beraz, aurreneko erreferentzia.

Baina laster ikusi zen Artetxek ez zuela erraz izango iazkoa errepikatzen. Haren ondotik atera ziren lehenengo hiru gidariek hobetu egin zuten denbora hura. Gorka Apalantzak (Subaru Impreza WRC) egin zuen onena (4:01), Joseba Zapirainek (Peugeot 206 WRC) bigarrena (4:03) eta Xabier

Lujuak (Skoda Octavia WRC) hirugarrena (4:04). Iñaki Alberdik (Porsche 911 GT3) egin zuen bosgarren denbora onena. Eta horrela geratu zen dena.

Bigarren txandan Alberdik ez, beste gidari guztiek hobetu zuten denbora: Joseba Zapirainek lehenengoan baino ia bi segundo eta erdi gutxiago egin zituen, Gorka Apalantzaren lehenengo denboraren azpitik ipiniaz; baina Apa-

lantzak lau segundo zuen ordurako berea hobetua. Honek, hirugarren txandan ere beste apur bat jaitsi zuen denbora, Zapirainek eta Lujuak, berriz, amore eman eta hanka altxa zuten apur bat.

AGUR ERRASTI, KAIXO AMENABAR

Izen handi horien arteko lehiaz gain, beste osagai polit bat ere bazuen zapatuko lasterketak: Aramaioko gidarien arteko erreleboa, hain justu. Bost urtean lasterketetan ibili ostean, Haritz Errastik etxekoa izan zuen azkeneko proba: iaz toki berean izandako istripuaren ondotik, orduko aho gustu txarra kendu eta bere klasean bigarren eginda agurtu da Errasti. Baina honek badu ondorengo: Inhar Amenabarrek zapatuan egin zuen lehenengo aldiz Aramaioko Rallysprinta, eta azken sailkapenean erdialdean amaitu zuen, zazpigarren (22tik) bere klasean.

ESANAK

"Pena bakarra ibilbide laburregia zela; hemen, hasieran denbora galdua, gero ezin da berreskuratu, eta topera irten dugu"

Gorka Apalantza > Irabazlea

"Emitza ona izan da; autoa ez zebilen guztiz ondo, baina osorik amaitu du. Sufritu ere asko egin dut urteotan; banao"

Haritz Errasti > Aramaiarra

"Erdialdean amaitzea ondo dago; gure autoa ez da hain ona eta besteak zailduago daude; ea 3-4 urtean aurrean gauden"

Inhar Amenabar > Aramaiarra

sailkapenak

LEHENENGOAK

1. Apalantza-Apalantza	11:56:30
2. Zapirain-Aguado	11:80ra
3. Lujua-Burgos	16:80ra
4. Artetxe-Fernandez	24:60ra
5. Alberdi-Del Cid	31:60ra
6. Alustiza-Vaquero	42:20ra
7. Labaka-Otaegi	46:70era
8. Uzkudun-Iturrioz	48:10era
9. Tricio-Vera	52:90era
10. Garcia-Perez	1:09:70era

FUTBOLA > PREFERENTE MAILA

Penalti bati esker, Pasaiak hiru puntuak eraman zituen

UDAK itxura ona eman zuen etxeko lehen partiduan, baina ate aurrean ez zuen asmatu

Igor Arriagak eta Ibon Lopezek izan zituzten aukerarik garbienak etxekoen partetik

UDA

0-1

PASAIA

EDU MENDIBIL > BERGARA

Denboraldiko etxeko lehen partiduan huts egin zuen Aretxabaletak. Igor Gordobilen eta Igor Arenazaren mutilek 0-1 galdu zuten Pasaiaren aurka, atzo Ibarrran. Futbol gosez ziren UDako zaleak (jende dezente batu zen Ibarrran) baina taldeak irudi ona eman arren, puntuak pasaitarrekin eraman zituzten.

Partidua hasi eta berehala gauzak okertu zitzaizkien UDakoek: Garaik eskuarekin ukitu zuen baloia area barruan eta

epaileak penaltia adierazi zuen. Pasaiak ez zuen barkatu.

AUKERA DEZENTE GALDU

Baloia jabe etxekoak ziren, baina zenbaitetan Pasaiaren atezainaren erruz eta besteetan etxekoen punteria faltagatik berdintzeko gola ez zen iritsi. Igor Arriagak eta Ibon Lopezek izan zituzten etxeko taldearen gol aukerarik garbienak.

Beharbada berdinketa izango zen emaitzarik justuena atzo. Futbolak, dena den, ez du justiziaz ulertzen. Edozein modutan, etxekoek joko ona egin zuten partiduko zenbait unetan eta hori da albiste pozgarriena entrenatzaileendako. Jokatutako bi partiduetan puntu bakarra lortu du UDAK. Datorren aste bukaeran Beriori egingo diote bisita.



UDA izan zen baloia jabe, baina Pasaiak egin zuen gol bakarra. JOSETXO ARANTZABAL

PREFERENTEA

Aloñak 0-1 irabazi eta Mondrak 5-1 galdu

Jokatutako bi jardunaldietan lau puntu eskuratu ditu Aloñak

E.M. > BERGARA

Aloña Mendik urrezko hiru puntu ekarri zituen zapatuan Astigarragatik. Partiduan zehar aurreratzeko aukerak izan zituzten oñatiarrek, baina gola ez zen luzapenera arte iritsi. Urola taldetik etorritako Ioritz Zufriak egin zuen gola, buruz, 92. minutuan. Aloñak lau puntu lortu ditu jokaturako bi jardunaldietan. Markagailuak erakusten duena baino errazago nagusitu ziren oñatiarrek zapatuan.

MONDRA GAIZKI

Mondrak, berriz, ahazteko moduko partidua egin zuen Tolosan. 25. minuturako 4-0 galtzen zebilen Mondra. 60. minutuan Jon Muruak Mondraren gola egin zuen, penaltiz. Luzapenean iritsi zen 5-1ekoa.

Etxean konposta egin nahi duzu?

Leintz-Gatzagan, Eskoriatzan, Aretxabaletan, Arrasaten, Oñatin, Bergaran, Elgetan edo Antzuolan bizi zara?

Debagoieneko Mankomunitateak konpostagailuak banatzeko hirugarren kanpaina jarriko du martxan.

Debagoienean bizi bazara eta bertan lorategia, lursaila, baratza edo antzekorik baduzu, deitu ezazu Debagoieneko Mankomunitatera eta har ezazu parte.

Eskaerak egiteko epea: irailaren 22tik urriaren 3ra, 8:30etatik 12:00etara. Konpostagailu kopurua mugatua da (170 konpostagailu banatuko dira).

Informazio gehiago nahi izan ezker:

Debagoieneko Mankomunitatea.

Nafarroa Etorbidea 17.

20500 Arrasate.

Tel.: 943 79 33 99.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA





Zerbitzurik arinenak bakarrik oparitu diezazuke ordenagailurik arinena

Erabili kutxanet eta ordenagailu ultraeramangarri baten
eguneroko zozketan parte hartuko duzu

Doako zerbitzua, erabilerraza, bizkorra eta segurua.
24 orduz egunean, 365 egunez urtean. Zure ohiko kontsulta eta
eragiketa guztiekin.

**38 ordenagailu ultraeramangarri zozketatuko ditugu
irailaren 8tik urriaren 15era bitarte.**

Egin zeure eragiketak **kutxanet**en, eta har ezazu parte zozketan.



0,95 kg. / 80 GB



Neurriak: 24,8 X 16,9 X 3,2 cm.
WIFI, Webcam, WINDOWS XP HOME...
Zozketaren oinarriak www.kutxa.net-en

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**

IRAILAREN 22A, AUTORIK GABEKO EGUNA

ASKA ZAITEZ



*Ingurumenak arnasa hartu behar du.
Eta guztiok lagundu dezakegu horretan
autoa zentzuz erabiliz, autobusa edo tren hartuz,
bizikletan edo oinez ibiliz.
Aska zaituz autoaren morrontzatik.
Zure mesedetan izango da eta ingurumena
zainduko duzu.*

Mugikortasun iraunkorraren Europako astea

TXIRRINDULARITZA > LEHENDAKARI TXAPELKETA

Aberasturi eta Sanz izan ziren azkarrenak Oñatin eta Bergaran

Bi lasterketak esprintean erabaki ziren; azkenean Seguros Bilbao taldeko Jon Pardok eraman du amateur mailako Lehendakari Txapelketa

EDU MENDIBIL > BERGARA

Azkenean, Jon Pardo nafarrak eraman du aurten Lehendakari Txapelketa. Aste bukaeran bi hitzordu izan dituzte amateur mailako txirrindulariek eta Oñatiko eta Bergarako emaitzen ostean, Seguros Bilbao taldeko Jon Pardok eraman du Lehendakari txapelkunaren *maillota*. Zapatuan, Oñatin, 14. tokian sailkatu zen Pardo eta atzo, Bergaran, bigarrena izan zen, Enrique Sanzen atzetik. Lehendakari txapelketan Noel Martin (NaturGas taldekoa, 99 puntu) eta Belca taldeko Aitor Campos (98 puntu) ziren Pardoren arerio zuzenak: Martinek 10 puntu eraman zituen aste bukaeran Oñatin zein Bergaran 11. postuan sailkatu zen-eta; Ocampos 12.a izan zen Bergaran, beste lau puntu eskuratuz. Esan bezala, ez ziren nahikoa izan Par-

do liderra gaintzeko. Seguros Bilbaoko txirrindularia 125 punturekin nagusitu da.

BERGARAN, ESPRINTEAN

Atzo goizean San Martin sariaren 43. ekitaldia jokatu zen Bergaran. 23 urtez azpiko txirrindulariek 106 kilometroko ibilbidea zuten eta, antza, txapelketa amaitzeko gogoz ziren: 43,57 km/orduko batez bestekoa egin zuten. Matxiategiko helmugara zazpi laguneko taldea iritsi zen eta esprintean Enrique Sanz (Lizarte) izan zen azkarrena. Haren atzetik Jon Pardo, Higinio Fernandez, Julen Gonzalez, Imanol Iza, Mikel Bizkarra eta Garcia sartu ziren. Jarraian, beste 57 txirrindulari iritsi ziren, taldetxotan banatuta. Higinio Fernandezek eraman zuen mendiko saria eta talde onena Naturgas izan zen.



Enrique Sanzek irabazi zuen atzo Bergarako proba, esprintean Jon Pardori (eskuman) nagusitu ostean.

E.M.

OÑATIN, ABERASTURI IRABAZLE

Bezperan, Oñatin, Oñati sariaren 21. ekitaldia jokatu zen, Lehendakari azken aurrekoa. Giro ona izan zuten txirrindulariek 102 kilometroko ibilbidea egiteko. Helmugara lau laguneko taldea iritsi zen ihes eginda eta Naturgas Energi taldeko Jon Aberasturik irabazi zuen Olakuako helmugan. Javier Vidorreta, Jose Carlos Lara eta Julen Gonzalez izan ziren hurrengoak, tropelari 15 segundoko aldea atarez.

Oñati saria

SAILKAPENA

1. Jon Aberasturi (Naturgas)	2:27:04
2. Javier Vidorreta (Cai)	d.b.
3. Guillermo Lana (Azpiru)	d.b.
4. Fabricio Ferrari (Azpiru)	d.b.
5. Mikel Landa (Naturgas)	7 segundura
6. Mario Gutierrez (Saunier)	9 seg.
7. Gorka Usua (Debabarrena)	15 seg.

San Martin saria

SAILKAPENA

1. Enrique Sanz (Lizarte)	2:25:58
2. Jon Pardo (Seguros Bilbao)	d.b.
3. Higinio Fernandez (Cueva)	d.b.
4. Julen Gonzalez (Azpiru)	d.b.
5. Imanol Iza (Bruesa)	d.b.
6. Mikel Bizkarra (Ibaigane)	d.b.
7. Benet Abad Garcia (Cueva)	d.b.



Partaideak txapelketa hasteko gertu, atzo goizean.

JOSETXO ARANTZABAL

GOLF > SAN MIGEL SARIA OÑATIN

Josu Arregi eta Rosa Larrea txapeldun

Atzo goizean 62 lagun lehiatu ziren Irelore zelaian, Oñatin; giro onean jardun zuten bolatxoa zuloan sartzeko ahaleginetan

E.M. > OÑATI

Irelore Golf Eskolak Oñatiko Udaren laguntzaz antolatuta, San Migel Golf Sariaren 6. ekitaldia jokatu zen atzo goizean, Oñatin, Soraluze jatetxe ondoko zelaian. Eguraldi ezin hobea izan zuten partaideek golfarekin gozatzeko. Irelore zelaiak zazpi zulo ditu eta bi itzuli egin behar izan zituz-

ten partaideek. Nagusietan 62 lagun lehiatu ziren, hamar emakume tartean.

Txapelketa 09:30ean hasi zen eta 14:00ak arte jardun zuten golf zaleek bolatxoa zuloan sartzeko ahaleginetan. Esan bezala, zelaiari bi itzuliak egin ostean, Josu Arregi bergararra eta Rosa Larrea oñatiarra izan ziren ira-

bazleak. Larreak eta Lierni Arregi bergararrak 26na puntu lortu zituzten, baina handicap baxuagoa duenez, Larrearendako izan zen garaipena. Hirugarren Beatriz Txintxurreta oñatiarra sailkatu zen. Gizonezkoetan bigarren Txemi Berraondo legazpiarra izan zen eta hirugarren Alvaro Gallastegi bergararra.

Gaztetxoan artean, Ander Etxaniz bergararra izan zen onena; Ander Biain oñatiarra bigarren izan zen; eta hirugarren, berdinduta, Jon Maiztegi bergararra eta Ander Garcia oñatiarra.



IparProject

www.iparproject.com

Etxebizitza ekipamendu integrala Merkatuen lehen markak
Mota askotako estiloak Gremioen koordinazioa



SASKIBALOA > EUSKADIKO KOPA

Biurrarena UPV taldeak jokatu du finala

Asteburuan Eskoriatzan jokatu aurreko fasean, Biurrarena UPV izan da talderik onena

Hondarribia Irunek eta Biurrarenak jokatu dute finala Eskoriatzan, urriaren 15ean

EDU MENDIBIL > ESKORIATZA

Ibarreko saskibaloizaleek goi mailako emakumezko jokalariekin gozatzeko aukera izan dute aste bukaeran. Eskoriatzan, Intxaurtxueta kiroldegian, Euskadiko Kopako aurreko fasea jokatu da.

Hiru partidu jokatu dira aste bukaeran; egubakoitzean Irlandesas eta Ibaizabal izan ziren aurrez aurre. Ibaizabal taldea uste baino errazago nagusitu zen, 73-54ko emaitzarekin. Zapatuan, berriz, Biurrarena UPVk arazo gehiago izan zituen Irlandesas menderatzeko. Azken minutura arte ez zen partidua erabaki. Azkenean, bi puntuko aldearekin (89-87) eskuratu zuten garaipena UPVko jokalariek. Eta azken jardunaldian, atzo, Biurrarenak lortu zuen Euskadiko Kopako finalerako txartela, Ibaizabali 76-61 irabazita. Aurreko bi jardunaldietan baino ikusle gutxiago izan

ziren atzoko partidu erabakigarriaren. Ehun ikusle inguru elkar-tu ziren Intxaurtxuetan. Egubakoitzean zein zapatuan 160 lagun izan ziren harmailetan.

FINALA, URRIAREN 15EAN

Manolo Muñoz Eskoriatza saskibaloitaldeko presidentea pozik zegoen txapelketak eskainitakoarekin zein zaleen harrerarekin. "Goi mailako partiduak ekartze-ko ilusioa geneukan eta taldeek bikain erantzun dute. Partidu ikusgarriak izan dira hiru jardunaldietan eta orain ikusteko dago finala zer nolakoa suertatzen den".

Euskadiko Kopako emakumezkoen finala Eskoriatzan jokatu da datorren urriaren 15ean. Hondarribia Irun eta aste bukaeran finalerako sailkatzea lortu duen Biurrarena UPV izango dira aurrez aurre egun horretan Eskoriatzan.



Argazkian, atzo goizean jokatu duen Biurrarena UPV-Ibaizabal partiduko irudi bat.

JOSETXO ARANTZABAL

ESKORIATZA, GERTU

Bestalde, Eskoriatza taldeari dagokionez, nesken zazpi talde izango ditu aurten: senior mailakoa, junior mailakoa, kadete mailan bi eta infantil mailan bes-

te hiru. Senior mailakoak martitzen bertan ezagutuko du denboraldiko egutegia. Urriaren erdialdean hasiko dute denboraldia, mailaz igotzeko helburuarekin. Inma Murillo eta Fernan-

do Raso dira taldeko entrenatzaileak eta iazko jokalariek osatzen dute taldeko oinarria. Era berean, junior mailako taldeak zazpi bat lagun igoko dira talde nagusira.

ESKUBALOA > SAN MIGEL SARIA



Irudian, Bergarakoen eraso bat zapatuko finalean.

JOSETXO ARANTZABAL

Amaya irundarrak, taldekako Euskadiko txapeldunak

Bergarak eta Eibarko Haritzak 25na berdinduz zuten zapatuko finalean, Zubikoan

E.M. > ARRASATE

AKE Squash taldeak antolatuta, Euskadiko taldekako squash txapelketa jokatu zuten zapatuan Arrasateko Musakolako kiroldegian, goizez eta arratsaldez. Zortzi talde izan ziren lehia,

tartean bi talde AKE Squash taldea ordezkatzuz, Arrasatearren partetik, Harriet Arenazak, Silverio Alvarezek, Igor Ansuategik, Victor Calderonek, Enrique Lopezek eta Koldo Zabaletak hartu zuten parte.

Guztira, 25 jokalarik jardun zuten, zortzi talde ordezkatzuz. Hiru jokalarik hartzen zuten parte norgehiagoka bakoitzean. Iruñeko CD Amaya taldeak irabazi zuen, Mundaiz talde donostiarraren eta Iruñeko San Juan taldearen aurretik. Finalean, 2-1 nagusitu zitzaion Amaya taldea Mundaizi. Villanuevak 3-0 irabazi zion Unanueri; Liam Kanek 3-1 Miguel Ruiz eta Mundaizen puntu bakarra Cabanillasek lortu zuen, Koldo Rosado 3-2 mendean hartuta. Arrasatearrak azkenak izan ziren.

ESKUBALOA > SAN MIGEL SARIA

Bergarak eraman zuen txapelketa, penaltietan

Bergarak eta Eibarko Haritzak 25na berdinduz zuten zapatuko finalean, Zubikoan

E.M. > BERGARA

Bergarak eta Eibarko Haritzak San Migel eskubaloitxapelketako finala jokatu zuten zapatuan, Zubikoan. Liga hasieraren atarian bi taldeek ikuskitzuz polita eskaini zuten. Lehia gogorra izan zuten bergararrek eta eibartarrek eta partidua 25nako berdinketarekin amaitu zen. Ondorioz, penalti jaurtiketen bidez erabaki zen San Migel txapelketako irabazlea;

mahoneroek punteria hobea izan zuten, 3-1 irabaziz. Mikel Plazaola bergararrak eraman zuen jokalaririk onenari zegokion saria: 9 gol sartu zituen zapatuko finalean.

ZARAUZ, HIRUGARREN

Finalaren aurretik, 3. eta 4. postuetarako partidua jokatu zen. Zarautzek 33-28 emaitzarekin irabazi zion etxeko taldeari, Aloña Mendiri.



JOSETXO ARANTZABAL

PARALINPIAR JOKOAK > HAMAR DOMINA EUSKAL HERRIRA

Txinatik Arrasatera, antolakuntzak eta kirolarien kemenak liluratuta

Rafa Mungia arrasatearra Pekinen izan da BAT Basque Teameko ordezkari moduan, eta gustura agertu da euskal paralinpikoek lortutakoarekin

JULEN IRIONDO > ARRASATE

"Besorik ez zuen igerilari txinatar bat bere proba irabazten ikustea, hunkigarria izan da". Paralinpiar Jokoetan parte hartu duten kirolariak egiten duten ahaleginak; horrek eta Txinak munduaren aurrean eman duen irudiak txundituta itzuli da Rafa Mungia arrasatearra Pekinetik etxera. Txundituta, eta BAT Basque Teameko komunikazio arduraduna den heinean, euskal kirolariak egindako lanarekin pozik.

Hamar domina lortu dituzte euskal kirolariak amaitu berri diren Jokoetan: Richard Oribe igerilari donostiarrak lau kolokatu ditu, urrezko bat eta hiru zilarrezko; Donostiako Sara Carracelasek eta Sandra Gomez nafarrak ere brontzezko eta zilarrezko domina bana irabazi dute igerian; Javier Otxoa bizkaitarrak urrea eta zilarra txirrindularitzako probetan; eta boccian zilarrezko dominarekin itzuli dira Pekinetik Yolanda Martin gipuzkoarra eta Santiago Pesquera nafarra. "Emaitza espero baino hobea izan da. Joko hauean kategoriarik bateratu egin dituzte; beraz, domina lortzea garestiago zegoen. Hamar dominaz gain, lau diploma ere lortu ditugu, eta ikusi da Euskal Herrian baditugula kirolariak paralinpikoetan mundu mailako izarrenak. Batzuk beteranoak dira, eta ikusi egin behar atzetik ba ote datozen berriak", dio Mungiak.

PUNTA-PUNTAKO KIROLARIAK

Baina euskaldunek eta ez direnek, Paralinpiar Jokoetan ibili diren kirolari guztiek egiten duten ahalegin handia nabarmen du BAT Basque Teameko komunikazio arduradunak: "Punta-puntako kirolariak dira. Oztupo asko dituzte, baina lan handia egiten dute horiek gainditzeko. Adibidez, igerilari batek bospasei ordu entrenatzen du egunero".

Rafa Mungiak aitortu digu Pekinen gauza hunkigarriak ikusi dituela, hankekin bakarrik indarra eginez proba irabazi zuen igerilari txinatarrarena edo Oscar Pistorius atleta hegoafrikarrarena; bi hankak falta izan arren eta hauen lekuan karbonozko zuntzezko protesiak jarrita, Olinpiar Jokoetan parte hartzeko aukerak izan zituen, nahiz eta azkenean Paralinpiarretan aritu. "Eta 100 metroko proban 11,5 segundoko denbora egin zuen. Horrelako gauza harrigarriak ikusi ditugu han;

bertan egon gabe ez da bat konturatzeko horrelako handitasunaz".

Baina Paralinpiar Jokoetan hartzen dute parte are ezintasun handiagoak dituzten kirolariak ere, boccia (petankaren tankera-koa) bezalako kirolean, adibidez. Mungiaren esanetan "hunkigarria da ikustea nolako ahalegina egiten duten hauek ere, eta nola pozten diren emaitzekin".

OIHARTZUN DEZENTE

Kirolariak eurek, beraz, garrantzia itzela ematen diete Paralinpiar Jokoei; baina eta gainerakoek? Zenbaterainoko oihartzuna dute? Bada, Mungiaren esanetan dezentekoa izan dute Pekinekoek: "Orain arte oso diferentzia handia izan da bi jokoen artean. Nire irudipena zen Paralinpiar Jokoei ez zutela sona handirik, baina han egonda ikusi dut ez dagoela hainbeste alde, adibidez, antolakuntzari eta Jokoak jarraitzen dituzten hedabide kopuruari dagokionez". Adibide batekin azaltzen du baieztapena Mungiak: "Atletismoa



Rafa Mungia kazetaria, Pekingo Kabia estadioan.

RAFA MUNGI

ikusten egon ginen egun baten estadioan 70.000 lagun zeuden. Esaten zen umeen artean banatu egin zituztela sarrerak, baina han adin guztietako jendea ikusten zen. Antolatzaileek ere bitar-

teko berak jarri zituzten bi Jokoetarako, eta nik uste dut Pekinen pauso bat egin dela kirolari hauen lana merezi duten moduan aitortzeko".

100.000 EURO DOMINAKO

Txinako Paralinpiar Jokoei, oro har, kirol arloan eman dutena aztertzen hasita, zenbait gauza nabarmendu ditu kazetari arrasatearra. Alde batetik, etxeko ordezkariaren nagusitasuna: "Txinak izugarriko egurra eman du, 200dik gora dominarekin". Olinpiar Jokoetako aurrekaria ikusita, hain espero zitekeen agian. Baina kasu harrigarriak ere izan dira Mungiaren hitzetan, Ukrainarena horietako bat: "Laugarren postuan geratu dira sailkapenean; hau gertatu izanaren arrazoia da herrialde hartan garrantzia handia eman dietela Paralinpiar Jokoei. Gobernuak 100.000 euroekin saritu du urrezko domina eskuratu duen kirolari bakoitza". Txirrindularitzan, berriz, britai-

niarren maila azpimarratu du BATeko kideak: "Darren Kelly jaun eta jabe izan da pistan". Azkenik, atletismoan, lehenago aipatutako Oscar Pistorius, abiadurako proba gehienetan nagusitu da.

LAU URTE BARRU LONDRESEN

Hauxe, beraz, Paralinpiar Jokoei erreposoa. Hilabete atzera begira jarrita, ordea, Olinpiar Jokoei buruz ere zer edo zer galdetu nahi izan diogu Mungiari, Maider Unda borrokalari oletarrak egindako lanaren gainean zehazki. Brontzezko domina gertu izan zuen Undak, baina azkenean bosgarren postuarekin konformatu behar izan zuen. "Kirol hauek hori dute. Bere burua ikusten zuen domina lortzeko moduan, baina bazekien zortzigarren ere izan zitekeela, segundo gutxitan erabakitzen da-eta dena. Txapelketa polita egin du eta burua goian behar du, Munduko Txapelketara begira jarri, eta ahalegin apur batekin Londresera iristeko maila eta adina ditu. Ea lau urte barru domina irabazteko modua duen, eta irabazten ez badu ere hori ez da garrantzitsuena: mundu mailan onenen artean dabil, eta hori aintzat hartu behar dugu".

Lau urte barru Londresen; hantxe dugu hitzordua Maider Undak (aurtengoa hobetzeko helburuarekin, ziur), kirolari paralinpiarrek eta kirolzale guztioek. Zain egoteko lau urte guk, lanerako 48 hilabete ingelesek. Maila oso goian utzi dute txinatarrek lekukoa.



Amador Granado, Gurutz Larrañaga eta Javier Otxoa.

RAFA MUNGI

"Nazioartean lehiatzen diren kirolariak laguntzeko sortu da BAT"

ETBn kazetari moduan urteetan ibili ostean BAT Basque Team izeneko egitasmo berrian murgildu da orain Rafa Mungia arrasatearra. Berak azaldu digu zer den BAT: "Iazko urrian Euskadi Kirola Fundazioa sortu zen, eta haren marka da BAT. Gure zeregina izango da nazioartean lehiatzen diren euskal kirolariak laguntzea, ez bakarrik ekonomikoki. Orain arte ere laguntzen ziren diruz kirolariak; aurrerantzean, ordea, formakuntza ere eskainiko zaie, laguntza teknikoaren bidez, bitartez, medikuak... Europatik hartu dugu eredua: kirolarien

bitartez, eta euren jarduna uzten dutenetik aurrera zer gertatzen den, horretaz ere arduratu egin behar dugu. Kirolari askok ahalegin handia egin du urteetan beraientzat garaipenak lortzen baina bide batez Euskal Herriaren izena ere munduan hedatzen, eta ahalegin horri erantzun egin behar dio gizarteak. Beste alde batetik, ezagutarazi nahi ditugu orain arte itzalean egon diren kirolariak: aurkeztu berri dugu Patxi Peula patinatzaile gasteiztarra, gehienondako ezezaguna, baina munduko azpitxapeladuna".

Sonia Corredera > Gimnasia erritmikoko entrenatzailea

"Gimnasta batek ezinbestean behar ditu borondatea eta konstantzia"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Eibarko kiroldegian eman zituen gimnasia erritmikoko lehen pausok Sonia Correderek umezela. Gero entrenatzaileari laguntzen jardun zuen eta orain dela zortzi urte Bergarako Ariznoa klubera egin zuen jauzia. Denboraldi hasieran aurtengo asmoez egin digu berba.

Zein helburu dute Ariznoako gimnastek denboraldirako?

Maila ezberdinetan Euskadiko txapeldun eta txapeldun orde izan ginen iaz eta emaitzei eustea da helburua, eta ahal den neurrian hobetzea. Baina askotan zailagoa izaten da mantentzea gora iristea baino. Txapelketetan jarduten duten 35 gimnasta daukagu Ariznoan hasi berrietatik gazte mailara artekoak.

Zein dira Ariznoako gimnasten ezaugarriak aipagarrienak?

Taldeko lanetan moldatzen gara ondoen. Gimnastek elkarren babesean gusturago lan egiten dute bakarka baino. Gainera, elkarri laguntzen diote eta oso ondo konpontzen dira. Hala ere, bakarka inoiz lortu izan dugu emaitza aipagarriak.

Zein aparaturekin moldatzen dira ondoen?

Teknika landuz gero, aparatu guztiekin maila bertsua lortzen dute gimnastek. Denboraldi hasieran oinarrizko ariketekin hasten gara eta pixkanaka zailtzen ditugu ariketak. Koordinazioa ere oso garrantzitsua da eta 5-6 urterekin klubean hasi orduko lantzen dugu koordinazioa.

"Uztaia nuen gustukoan gimnasiako alderdi guztiak lantzeko aukera ematen duelako"

"Ikasleei esaten diet entrenamendu orduetarako ahalik eta probetxuegi ateratzeko"



Bergarako Ariznoa klubeko gimnasten entrenatzailea da Sonia Corredera azken zortzi urteetan.

JOSETXO ARANZABAL

Zein aparatu zenuen gogokoen?

Uztaia. Musika lasaia zein arina erabil daitezke eta gorputz guztia eta gimnasiako alderdi asko lantzeko aukera ematen du: jauziak, oreka, giroak...

Gimnastak umetan hasten dira. Noiz eta nola hasi zinen zu?

Eibarko kiroldegia ireki zutenean, 6 urte nituela, Ana Calvo entrenatzailearekin hasi eta 16 urterekin utzi arte ibili nintzen.

Musika eta dantza gustuko nituen eta gimnasia erritmikoari buruz ezer askorik ez nekien arren, banekien musika eta aparatuak tarteko zirela. Hortaz, probatu eta gustatu egin zitzaidan.

Ariznoan noiz hasi zinen?

Gimnasta izateari utzi nionean Eibarko entrenatzaileari lagundu nion umeak gertatzen. Gero, entrenatzaile ikastaroak eta heziketa fisiko ikasketak egin nituen. Bergaran, orain dela zortzi urte hasi nintzen. Eibarko taldearen eta Ariznoaren artean harreman ona zegoen eta hementxe entrenatzaileak, Helena Herrosek, utzi zuenean proposamena jaso eta onartu egin nuen.

Aldaketa handia dago gimnastatik entrenatzaile izatera?

Sekulakoa. Gimnasta nintzenean gauzak egiten nituen zergatik jakin gabe. Orain saiatzen naiz ikasleei azaltzen nola egin behar dituzten mugimenduak. Gimnastian ez da futbolearen bezala ume bati baloia eman eta ostikoa nabarmen ikusten. Gimnastian emaitzaren bat ikusteko atzeko lan handia dago. Ikasleei esaten diet entrenamendu orduetarako probetxua ateratzeko.

Zein maila dago gurean gimnasia erritmikoan?

Ibarrean eskolarteko mailan jarduten dugu. Asteazken hiru egunetan bi orduetarako entrenamenduak eginez, ezin da askorik eskatu. Ondo pasatzea da helburua, ez irabaztea.

Zer behar du gimnasta onak?

Borondatea eta konstantzia beharrezkoak dira. Bestalde, koordinazioa edo bihurkortasuna izatea beti dira onak, baina hori landu daiteke.

Nola ikusten duzu gimnasia erritmikoa etorkizunean?

Jendea gimnasia erritmikoa kirol moduan ezagutzen da eta gero eta jende gehiago animatzen da probatzera. Hala ere, oraindik jende askok uste okerrak ditu kirol honen gainean: gogorregia eta neketsua dela diote batzuk, anorexiarekin lotzen duenik ere bada... Baina kiroldegira gerturatu besterik ez dute gimnastak nolakoak diren eta zertan jarduten dugun ikusteko.

Euskarak batzen gaitu

ELGETAKO
espaloia
KAFE ANTZOKIA

Astelehenetik barikura
eguneko menua

Asteburuetan
plater konbinatuak, ogitartekoak eta menu bereziak



> **MOISES AZPIAZU**
Bergarako Baseta eta Igartuak irabazi dute solte txapelketa > 26



> **MOTOR KLASIKOAK**
Lambretta eta Vespen ikuskizuna Elgetan > 26

> **UNAI ELORTZA**
Txakurra etxerako hezten hasi zen eta erreskaterako talde bateko kide izaten amaitu du arrasatear gazte honek > 47



SAGARDO EKOIZLEAK Guztira 14 ekoizlek ekarri zuten etxeko sagardoa herritarrek dasta zezaten.

JOSETXO ARANTZABAL

Sagardo barietate handia dastatu zuten aramaioarrek

Gozoenetik, mingotsenera, aukera zabala egon zen probatzeko

Barietatea gorde eta ekoizpena sustatzea da Sagardo Egunaren asmoetako bat

JON BEREZIBAR > ARAMAIO

Txirritola elkartearen gonbitearekin, herriko sagarrondoan iazko uztaren zukuak dastatzeko aukera izan zuten atzo aramaioarrek. Gozoagoa, mikatzagoa, gas gehiago edo gutxiagorekin... gustu guztiak asetzeko moduko eskaintza egon zen.

OPAROA EZ, BAINA ONA BAI

Guztira 14 ekoizlek eroan zuten sagardoa. Eta ez hori bakarrik, gazteenek ere herriko sagarraren ura dastatzeko aukera izan zuten zukuak ere egin zituzten-eta haiendako. Makina bat sagar barietate egon zen dastatzeko baina Aramaion badute sagar motak bereziak direnak. Jeremiasen sagarra, kasu, herriko berezitasuna-edo litzatekeena. Iazko uzta, hala ere, ez ei da opa-roenetakoa izan- 8.000 litro-. Negu gogorak eta eguraldi txarrak gutxiago ekoiztea ekarri duela agertzen Juanan Aretxaga-

gak, ekoizleetako batek eta Aramaioko Sagardogileen Elkarteko (A.S.E.) lehendakari ere badenak. Hala ere, hori ez zen aitzakia izan eta eguerdi partean, egu-

raldi bikainak ere asko lagunduta, jendez gainezka egon zen plaza. Txirritolakoak ere, hortaz "pozik", Joxe Migel Campillo elkarteko lehendakariak baiez-

tatzen duenez. Eta oso pozik ere Markel Arriolabengoa, herriko txirritularia. Hari egokitu zaio aurten txotxa egitea, denboraldi bikaina egin du-eta hark.

Juanan Aretxaga > A.S.E.ko lehendakaria

"Bertako sagar barietatea ez galtzea da gure helburua"

J.B. > ARAMAIO

Aramaioko sagardogileak elkartu eta jarduera berrindartzea da Sagardogileen Elkartearen helburua. Aramaion sagar barietate berezia ere badagoela azaltzen du lehendakariak. Bertako sagarren banku genetikoan ere dihardute lanean.

Zein litzateke elkartearen helburu nagusia?

Sagardogintza jarduera berreskuratzeko sortu genuen taldea eta poliki-poliki badabilta herrian sagarron-

doak landatzen. Helburua da bertako barietateak ez galtzea eta horretarako Jaurritzarekin gabilta lanean banku genetiko baten gordetzea. Barietate asko dago oraindik ezagutu ere ez duguna egiten eta hori gabilta aztertzen, besteak beste.

Sagardogintzara mugatzen zarete bakarrik?

Bai, hasiera baten. Sagardoaren ekoizpenarekin hasi gara baina gure asmoa da ozpin, marmelada edota orujoak ere egiten hastea.



J.B.



UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHE

Argazki guztiak fotoblog honetan:



IZOTZA. Ipar Poloko paisaia dirudien arren Islandia da. Jokulsárlón lakuaren uretan Vatnajökull glaziarretik askatutako izebergak. /Argazkia: Aintzane Agiriano/Eskoriatza




DELTA. Tarragonako Delta del Ebroko laku batean ontzi hau aurkitu genuen. Noren zain ote dago? /Argazkia: Agurtzane Labaien/Bergara



MEREZITAKO ATSEDENA. Ondo merezitako atsedena hartzeko garaia heldu da. Korsikako kostea zaintzen duten Dorre Genoves baten ondoan. /Argazkia: Aimar Elortza



MONASTEGIA. Argazkia ekaineko astebukaera batean Errioxako monastegi batean ateratakoa da. /Argazkia: Aitor Intza/Bergara



ERROMA. Erroman ateratako argazkia. Venezia plazan kokatuta dagoen Victoria eraikinaren gain gailatik ataratakoa. /Argazkia: Amaia Vazquez



MARRAZO BELTZA. Aurten Fiji Irletan ateratakoa. Goizeko lehen izpiekin, Marrazo Santutegia deritzon ur gardenetan dago kokatua argazkia. /Argazkia: Andoni Arkauz



ZOKOA. Afrikako leku honetara hurbilduz gero, Marrakecheko zokoa gauez, galdu ezin den ikuskizuna! /Argazkia: Aitziber Plazaola



'PRISA MATA'. Marrakechen edozein une eta leku da aproposa deskantsatzeko, egiten duen beroarekin behintzat ez da harritzekoa! /Argazkia: Ane Jauregi



LEKEITIO. Lekeitioko hondartzan gauez ateratako argazkia. /Argazkia: Angel Moraleja/Arrasate



NIKARAGUA. Argazki honetan Granada hiriko kaleak islatzen dira. /Argazkia: Arantzazu Elizondo



KAIPIRINHA BATEKIN. Algarben, zerbait freskoa hartu nahi genuela eta, Irantzuri otu zitizion, Kaipirinha bat hartzea nahi zuela. /Argazkia: Arnaitz Eraso



DEBA. Iluntze edo arratsalde batean eguna nahiko lainotuta zegoen, beraz Itziar gailatik Debarako bidaian argazki bat ateratzeko zegoela konturatu ginen. /Argazkia: Belen Dominguez/Arrasate

NEKO GOIENKARIA IV. LEHIAKETA



www.goiena.net/blogak/argazkiak



CANAIMA. Canaimako parke naturalean ateratako argazkia, Tepuiak hurrunean. /Argazkia: Ekaitz Aramaendi



ESKU UGARI. Asturiaseko Covadongako laku gaineko arroketan gauza arraroak egiten. /Argazkia: Gorka Martinez /Bergara



BEHI SAKRATUAK. Indiako kaleetan askotan ikus daitezkeen irudiak. /Argazkia: Idurre Aierbe /Arrasate



UDALAITZ OÑATITIK. Hona hemen Udalaiz eta Anboto ilunabarrean abuztu bukaeran. Udanako behatokitik aterata. /Argazkia: Isma Etxeberria /Oñati



JOLASA. Donostian, uztailaren 19an eta 20an, olatu ederrak egon ziren. Ikusten da nola haurrak eta gurasoak jolasten ari diren Donostiako txoko eder batean. /Argazkia: Iñigo Trueba /Aretxabaleta



BURBUILA. Batzutan ura eta Fairy pote bat nahiko dira lagun artean arratsalde on bat pasatzako! /Argazkia: Yera Sanchez /Aretxabaleta



ESSAOUIRA. Essaouira Marokok daukan kostako hiri politenetakoa da. Eguzkia itsasoan galtzen ari den unea antzeman daiteke. Baita abuztuko arratsaldeko azken orduetako freskura Kite-surfa egiteko aprobetxatzen dutenak ere. /Argazkia: Xabier Mondragón /Arrasate



DREAM SPACE. Londresen aterata. Plastiko material sendo batekin egina dago, kanpoko argiarekin aldatzen doa kolorearen intentsitatea eta musika lasaia jarrira oso atsegina da, oso lasagarria. Horra sartu eta irribarrea ateratzea dena bat izaten da. /Argazkia: Maite Jauregi /Bergara



TXINA. Txinako hego mendebaldeko arroz-soroetako argazkia da. Mendia terraza txikietan banatzen da maldan arroza erein ahal izateko. /Argazkia: Uzuri Larrañaga /Oñati

Baldintzak:

- Udako argazkiak izan behar dira: aurtengoak edo beste uda batekoak. (Argitaratu gabek)
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta.
- Bidali ahal izango dira e postaz argazkiak@goiena.com helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
- Argazkiak jasotzeko azken eguna, 2008ko irailaren 17a.

- Parte-hartzaile bakoitzak bidali ahal izango ditu, gehienez ere, 5 argazki.
- Adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina eta telefonoa, eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, etab.).
- Astero argitaratuko dira *Asteleheneko Goiienkaria*-n.
- Urriaren 6ko *Asteleheneko Goiienkaria*-n aditzera emango dira irabazleen izenak.

Sariak:

- 1. saria:** Olympus E-510 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
- 2. saria:** Astebukaera bateko egonaldia bi pertsonentzat, Arrasate Bidaiek-en eskutik.
- 3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean. .



Babeslea:

 **kutxa**

Laguntzaileak:


ARRASATE BIDAIEK
BIDAIA-AGENTZIA ELKARTUA


GURE AMETSA
JATETXEA


kiñu
argazkilariak


OLYMPUS
Your Vision, Our Future

DANTZA > XXIV. MOISES AZPIAZUREN OMENEZKO DANTZA SOLTE LEHIAKETA

Etxeko bikotea nagusi txapeldunen arteko lehian

Bergarako Ibane Basetak eta Mikel Igartuak irabazi dute lehiaketa. Euskal Herriko bikote onenen artean eskuratu zuten txapela egubakoitzean

JON BEREZIBAR > BERGARA

Txapeldunen txapelketa izan ohi da Moises Azpiazu dantza solte lehiaketa. Euskal Herriko txapeldunen arteko norgehiagoka izaten da eta, hain zuzen. Aurten ere Gipuzkokoa, Arabako, Bizkaiko zein Euskal Herriko onenak igo dira pilotalekuko oholtza gainera. Aurten, baina, txapela etxean geratu da, Bergaran bertan, Ibane Basetaren eta Mikel Igartuaren eskuetan.

Berriki Euskadiko bigarren



Bikote irabazlea, Mikel Igartua eta Ibane Baseta, saria jaso ostean egindako erakustaldian.

JOSETXO ARANTZABAL

eta Arabako lehenak izan eta gero, denboraldia borobiltzeko etxeko saria geratzen zitzaizen bergararrei. Forma ezin hobean eta pau-

su berriekin lan bikaina egin zuen bikoteak eta ederto bete zuten helburua. "Zalantza geneukan Oretako eta Hernaniko bikoteak, ez

ote gintuen gaudituko", aitortzen du Basetak, baina horiek bigarren geratu ziren azkenean (Nagore Indakoetxea eta Xabier Segu-

ra) eta hirugarren lekuan Sestatik etorritakoak (Karlo de las Heras eta Oroitz Bilbao). Garaipenaz galdetzerakoan Basetak dio euren urte osoan entseatzan dutela, "aurten oportetean ere ibili" direla azalduz. "Oso ondo preparatuta etorri gara aurten eta pausu berriak egin ditugu bai arin-arin zein fandangoan", dio dantzariak. 200 euroko saria, garaikurra eta txapela eta zapia eroan dituzte etxera Basetak eta Igartuak. Denboraldi amaiera bikaina, hortaz.

BIKOTE GUTXIAGO AURTEN

Bestelako konpromisoengatik eta eragozpenengatik aurten aurrekoretan baino bikote gutxiagok hartu dute parte: bostek.

Ikuskizuna osatzeko lehiaketa hasi baino lehen txikiak egin zuten dantza. Euskal Herriko txikiak txapelketako lehen hiru bikoteak arduratu ziren nagusiagoendako oholtza berotzeaz.

MOTORRA > VESPA ETA LAMBRETTA KONTZENTRAZIOA ELGETAN

Vespek, Lambrettek eta, batez ere, 'sidecar'-ek erakarri zituzten begirada gehienak

Beste urte batez, Eibarko Lambretta clubak kontzentrazioa egin zuen atzo Elgetan. Vespa 'sidecar'-ak izan dira izarrak aurten

JON BEREZIBAR > ELGETA

Espero baino partehartzaile gutxiagorekin baina giro ezin hobean pasatu dute zaleek aurten ere Vespa eta Lambretta kontzentrazioan. 56 motor klasiko batu dituzte aurten Elgetan, horietatik, 30 Lambrettak eta gainontzekoak Vespak. Fermin Iribar Eibarko Lambretta

elkarteko kideak azaldu duenez, azkenaldian kontzentrazio asko egon da inguruan eta "horrek eragina izan du". Hain zuzen, etxekoek egin dute kale. Bergarako hamar bat zale ez dira aurtengoan joan eta Beasaingoek eta Zaldibikoek ere ez dutela parte hartu agertzen du taldeko kideak. Hala ere, Iribarrek berak 4 Lambretta eroan zituen eguerdian Elgetako plazara, gainontzekoekin erakusgai ipini zituenak, elgetar baten baino gehiagoren miresmenerako, ziurrenik.

SIDECARRAK IZAR

Aurreko urteetan baino lagun gutxiago bai, baina, "gustura" pasa zuten atzoko eguna. Aurten izarrak Valladolid ingurutik ekarritako hiru Vespa sidecar eta segizioa osatzen zuten seiscientosak izan dira. Horiekin eta gainontzeko Vespekin eta Lambrettekin 40 bat kilometro egin zituzten Durangaldean eta Debagoienan barrena. Eguraldi bikainarekin eta ibilgailu ikusgarriekin, ederra izan zen errepedetan motorzaleek emandako irudia.

Hori, azaldu moduan eguerdian egin zuten, ze bazkalorduan, hitzordua atzera ere Elgetan zeukaten. Urtero moduan motorzaleek bazkaria egin zuten. Guztira 55 kide elkartu ziren bazkalorduan.



Elgetako plazan ipini zituzten motorrak erakusgai.

JOSETXO ARANTZABAL



JOSETXO ARANTZABAL

Txikien danbor hotsak san Migelen atarian

San Migelak hastear daude eta hori iragarri danbor hotsak entzun ziren zapatu arratsaldean Oñatin herriko txikien eskutik. 150 neska mutikotik gora hartu du parte umeen danborradan eta Foruen plazan jende eta burrunbadaz bete zen zapatuan San Migelen martxaren doinua jarraitzeko.



JOSETXO ARANTZABAL

Salmenta eta giro polita Elgetako azokan

Goizeko hamaiketan azoka ireki eta berehala agortu ziren, lehenik eta behin, ogi eta gazta. Hirugarren urtez antolatu dute Elgetako baserritarren azoka eta ohitura sustraitzen doala dirudi. Hala baieztatu zigun Carmen Altube baserritarra, eguerdian, generoa ia bukatuta, goiza zelan joan zitzaion galdetzerakoan. Ogia, gazta, ezta eta barazkiak -tomatea batez ere - saldu zuten zapatuan Elgetako hamar bat baserrietako postuetan. Sagardo kupela ere ipini zuten plazan baina sagardozaileen hitzordua arratsaldean izan zen gatzetxeok antolatuta.

ASTE BUKAERA...

Unai Elortzarekin



Unai Elortza arrasatearrak beti ondoan daraman laguna du Juani txakurra; ondo hezi ezkerro izugarritzko harremana sortzen da animaliaren eta jabearen artean.

J.I.

"Txakurrekiko maitasuna eta jendeari lagundu nahia uztartu gura nituen"

Duela bost urte hasi zen txakurrak hezten ikasten, eta egun erreskateetarako talde bateko kide da

Domekero biltzen dira Elorrion, eta orain hasi dira txakurra etxerako hezteko jendeari ikastaroak ematen

JULEN IRIONDO > ELORRIO

Giltzak egiten ditu, baina baita giltzak eman ere, eta oraindik halakorik egiterik tokatu ez zaion arren, behar denerako ateak zabaltzeko ere prest! Unai Elortzak (Arrasate, 1981) JMAN egiten du lan, baina ez pentsa han egiten dituen giltzak oparitzen jarduten duenik: beste era bateko giltzak ematen ditu, txakur bat egoki hezteko behar direnak. Horrela hasi zen bera ere, txakurrari eguneroko esanak nola betearazi ikasten; ikasi, txakurrari erakutsi eta ez zen hor gelditu Unai. Orain erreskateetarako txakurrak dituzten talde bateko kide da; ez zaio oraindik hondamendi batera joatea tokatu, baina prest dago hondakinen artean geratutako pertsonengana eramango duten ateak zabaltzeko, bere txakur *Juani*-rekin.

Elorrion. Domeka goiza. Berdin da ze domeka, guztietan elkartzen baitira Unai eta bere kideak entrenatzeko. "Elurra egiten badu ere, autoarekin hona iritsi badaiteke, etorri egiten gara. Duela bost urte hasi nintzen honetan, gustatu egin zitzaidan eta gero eta zaletasun handiagoa dut

gainera; gero eta denbora gehiago pasatzen dut txakurrarekin".

JENDEARI LAGUNDU NAHIA

Esan bezala, *Juani* du txakurra. Bi urteko artzain belgikarra. Bata bestearen osagarri dira, txakurrak behar du bera, eta berak txakurra: "Ehizarako txakurrak izan ditugu beti etxean. Baina nik erabaki nuen niretzako beste bat ekartzea, mendian ibiltzeko-eta.

Txakurrak hezten zituen lagun baten berri eman zidaten. Elorrion etorri eta honetan hasi nintzen. Txakur hura akabatu egin zidaten, pozoituta, eta bi urteotan *Juani*-rekin nabil".

Txakurrarekiko maitasuna eta jendeari lagundu nahia, biak uztartu nahi zituen Unai. Izan ere, beste kezka hori ere bazuen arrasatear gazteak: "Suhiltzaile izateko ikasten hasi nintzen; bai-

na asko ikasi behar zen, eta utzi egin nuen. Eta hemen ikusi nuen aukera jendartearentzako probetxugarri izan eta aldi berean txakurrarekin disfrutatzen".

PSIKOLOGIKOKI ERE PREST

Bere moduan Elorrion iritsitako beste lagun batzuekin batera taldea sortu zuten duela bi urte: zazpi kide dira egun. Oraindik ez zaie egokitu hondamendi batera joan beharra; inoren gaitzik ez dute desio, baina badute gogoia denbora honetan guztian ikasten dihardutena -nazioartean ere ibiltzen dira ikastaroak egiten-praktikara eramateko. "Guk txakurrarekin disfrutatu egiten dugu, nahiz eta badakigun irteera tokatzen zaigunean gustagarriak ez diren gauzak ikusi beharoko ditugula. Baina psikologikoki ere ari gara horretarako prestatzen, hitzaldiak entzunez eta irudiak eta argazkiak ikusiz".

Orain, berriz, irakasle lanean dihardu da Unai: "Gure jarduerak egin ahal izateko diru apur bat biltzeko txakurra duen edozeini hura hezten laguntzen diogu. Domeketan hona etorri

"Portugesez ere egiten diogu txakurrari, hizkuntza horrek duen tonu goxoagatik"

Maitasun asko. Horixe eman behar omen zaio txakurrari bera ere zintzo portatu eta beharra dugunean nahi bezala erantzun dezan. Haurtxo txiki batekin konparatzen du Unai: "Hari moduan tontokeria pila bat egin behar zaizkio". Gauzak gaizki egiten edo esanak betetzen ez dituenean, ordea, horretaz ohartarazi behar da txakurra, baina beti ahoz: "Txakurra ez da jo behar. Jota lortuko dugun bakarra izango da beldurra hartzea, gurekiko konfiantza galtzea, eta lehen guri itsatsita egoten bazen, hortik aurrera badaezpadako distantzia bat gordetzea, berriro joko dugun beldurrez. Jo barik, nahikoa da txakurrari garrasi egitea. Txakurra esaten diogunaren tonuagatik konturatzen da ondo diharduen ala ez". Beste adibide bat, kasu honetan txakurrari goxotasuna transmititzeko: "Normalean alemanez egiten diogu txakurrari, hizkuntza horretan hitzak laburrak direlako; goxo hitz egin nahi badiogu, berriz, portugesez".

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aretxabaleta. 72 metro koadroko etxebizitza erdialdean. Prezio negoziagarria. Saltzeko presarekin. 659 64 67 38.

Bergara. Etxebizitza salgai Bidekurutzeta kalean. Sukaldea, egongela, bi logela, bainugela eta trasteleku. Guztiz eraberritua. Prezio interesgarria. Oso aukera ona. 618 44 38 44.

Oñati. 90 metro koadroko etxebizitza erdigunean. Hiru logela eta bi bainugela. Gara je itxia eta ganbara. Guztiz jantzia. Oso eguzkitsua. 680 44 95 55.

Oñati. 65 metro koadroko apartamentu berria salgai erdialdean. Gara je eta guztiz. 665 71 42 69.

102. EROSI

Bergara. Etxebizitza txikia erosiko nuke. 680 35 96 30.

103. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Etxebizitza ematen da errentan. 649 07 97 56.

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan Zerrajera kalean. 950 euro hileko. 646 81 03 35.

Arrasate. Hiru edo lau ikaslerentzako gertatuta dagoen etxebizitza ematen da errentan herri erdialdean. Koldo. 629 16 37 76.

Donostia. Apartamentua ematen da errentan Gros auzoan. Logela, egongela, sukaldea eta komuna. Irailetik ekainera arte. 615 70 22 68.

Eskoriatza. Etxebizitza ematen da errentan Eduardo Gorosarri enparantzan. Ikasle edo familia baten-tzat. Deitu 605 77 51 65 edo 943 71 48 65 telefono zenbakietara.

Oñati. Etxebizitza berria ematen da errentan Kur-tzebide kalean. Lau ikasle edo irakaslerentzat. Bilogela eta terraz handia. 61032 99 36.

Oñati. 80 metro koadroko etxebizitza berria ematen da errentan erdigunean. Deitu 615 73 29 83 edo 652 76 50 90 zenbakietara.

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan ikasleentzat Zerrajera kalean. 658 70 91 54 / 605 72 39 51

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar duzu errentan. Bikote ardu-ratsua gara. 615 73 79 11.

Arrasate. Emakumea etxea errentan hartzeko prest. 659 35 09 30.

Bergara. Etxebizitza errentan hartu nahi duzu. Bikote bat gara. 688 68 77 80.

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. 6085737 68.

Eskoriatza. Etxebizitza hartuko nuke errentan azarotik aurrera. 610 89 76 64 edo 665 30 70 94.

Eskoriatzan edo Arrasaten etxea errentan hartuko nuke. 635 12 87 82.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Bilogela errentan erdigunean. 680 30 24 64.

Arrasate. Etxea osatzeko pertsona bat behar duzu Arrasateko erdialdean, uni-bertsitatetik 5 minutura. Sukaldea guztiz hornituta, logelak eta sala handiak, bi bainugela, eguzkitsua, wifi-a. 699 28 99 06 edo 678 76 28 22.

Arrasate. Mutil batek logela hartuko luke errentan. 645 72 25 24.

Bi neska ikasle behar dira etxea osatzeko Aretxabale-tan. Hiru logela, sukaldea, despentsa, egongela, bi komun eta terraza. Autobus

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEA OSATU
106. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK

201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

3. LOKALAK

301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

4. LANA

401. ESKAINTZAK
402. ESKAERA
403. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA

601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
604. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK

701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

8. DENETARIK

801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK

901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

10. RELAX

Eguenerarte (18:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com
http://goiena.net/sailkatuak

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU. GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 17 € (BEZ BARNE).

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira. GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Irakasleen

LAN POLTSA

943 76 44 53 • Zabalotegi 13 • BERGARA
www.udaleuskaltegiak.net
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

geltokitik gertu. Garazi. 618 92 40 68 edo 646 94 19 81.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Gara je itxia salgai Zigarrola auzoan. Deitu 626 70 61 79 zenbakira.

Bergara. Gara je itxia salgai Ibargarai kalean. Deitu 605 77 57 33 telefonora.

202. EROSI

Eskoriatza. Gara je itxia erosiko nuke, ahal izanez gero erdigunean. 690 04 40 53.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Oñati. 48m²ko etxabekomertziala ematen da errentan, ezisteko aukerarekin. Guztiz eraberritua. Negoziarako egokia. 608 96 92 75.

ARRASATE

Odontologia

behar da hortz klinikarako.

Biduali argazkidun curriculuma helbide honetara:

"Odontologia" erreferentzia
Toribio Etxeberria 4, 1 esk
20600 Eibar

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Antzuola. Emakumea behar da haurra zaintzeko. Deitu 677 98 54 46 edo 943 76 64 98 zenbakietara.

Aramaioko lagun talde batek aerobik irakaslea behar du. 665 72 62 83.

Arrasate. Pertsona nagusi bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakumezkoa behar da. 619 58 98 50.

Arrasate. Igeltsero lanak egingo nituzke. Rolando. 679 23 10 44.

Arrasate. Emakume euskalduna gertu umeak zaintzeko. Esperientziaduna. 667 87 99 16.

Bergara edo **Antzuola.** Emakume gaztea umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko gertu. Ana. 662 07 56 10.

Bergara edo **Antzuolan** umeak zaintzeko nituzke, 15:00etatik 19:00etara. 696 84 19 51.

Bergara eta Antzuola. Mutil arduratsua sukaldari laguntzaile lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. 685 42 72 80.

Bergara. Emakume gaztea pertsona adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko gertu. Paperekin eta esperientziarekin. 686 99 59 41.

Bergara. Esperientzia handiko andrea etxeko orduka garbitzeko gertu. 943 76 08 76 edo 616 78 35 57.

Bergara. Neska euskalduna gertu arratsaldez umeak zaintzeko. 660 06 48 47.

Debagoiena. 28 urteko mutila edozein lan egiteko gertu. Hiru urte darima Bergaran bizi izaten. Christian. 662 08 22 03.

Debagoiena. 37 urteko mutil euskalduna asteburuetan edozein lan egiteko gertu. 686 99 23 94.

Debagoiena. Arrasateko 37 urteko mutila asteburu eta oporretan edozein lan egiteko prest. 686 99 23 94.

Debagoiena. Emakumea etxeko garbiketarako gertu. 610 82 02 17.

Debagoiena. Emakumea garbiketarako lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko gertu. Etxean bertan biziko litza-teke. 663 65 56 34.

Debagoiena. Emakumea

6/ MOTORRA

601. SALDU

Honda Africa Twin motorra salgai. 1992koa. Oso egoera onean. 2.800 euro. 696 16 83 06.

Seat Alhambra monobolumenen salgai. 1.900 cc. 115 ZP. 6 abiadura. Goi mailako ekipamendua. Oso egoera onean. 128.000 km. 12.500 euro. 645 73 97 69.

Yamaha SR 250 cc motorra salgai. 800 euro. 645 73 97 69.

7/ ANIMALIAK

703. EMAN

Katua oparitzen da, arazo pertsonalengatik ezin dugu-lako zaindu. 943 77 08 19 edo 687 75 28 41.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Basalurra salgai Urkulu, Bolibar, Osintxu eta Antzuolan. 678 72 75 72.

Baxu anplifikagailua salgai. Peavy 6 seriea. 250 watt. Burua eta bozgorailua. 610 85 32 04.

Bi lursail salgai Leintz Gatzagan. Bata, Arrate-Behean, 126 metro koadrokoa. Bestean, Arrate Bueltan, 1.502 metro koadrokoa. 615 74 13 47.

Biola. 38 zentimetrakoa. Arku eta fundarekin. 550 euro. 944 12 46 28.

Biola. 39 zentimetrakoa. Fundarekin. 450 euro. 944 12 46 28.

Brain Training berri-berria salgai. Nintendo DSrako. 617 13 17 51.

Flex Multielastic koltxoa salgai. 150x180 cm. Egoera onean. 200 euro. 696 48 12 99.

Ordenagailua. Bigarren eskuko ordenagailua salgai. Hiru urte ditu. 150 euro. 943 08 18 13.

Teleskopioa salgai. Astrolon etxeko. 402 potentzia. 656 78 64 64.

Tronpeta salduko nuke. Egoera onean dago. 638 89 78 76.

806. GALDU

Aretxabaleta. Plazara markako poltsa galdu dut. Laranja kolorekoa. Barruan Nintendo DS dauka. 696 46 03 93.

Oñatin umeak lo egiteko zapi galdu nuen irail hasieran, Errekaldetik kiroldegirako bidean. Pampina baten burua dauka. Arroza, berdea eta morea da. 650 27 05 78.

9/ HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Leioara joan-etortria. Leioara unibertsitatera joan beharra dut ia egunero. 09:00etarako joan eta 14:00etan itzuli. Bestelagun batzuekin autoa txandaka eraman edo gastuak konpartitu nahiko nituzke. 657 79 07 39.

ETXE AGENTZIAK

Jar ezazu hemen zure publikitate
943 25 05 05 publi@goiena.com



INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokrosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:
• Zabalotegi 80 m². Eguzkitsua. Bista onak.
• Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
• Zubieta 80 m². Berritua. Ganbararekin.
• Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
• Bidekurutzeta 60 m². Berritua. Gazteentzat.
• Ibargarai 74 m². Ondo. Garaiea aukeran.
• Zubieta 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
• Matxiategi 61 m². Prezio ona. Eguzkitsua.
• Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
• Barrenkale 82 m². Berritua.
• San Lorenzo. Berritua. Prezio ona.
• Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
• Zubieta 52 m². Gazteentzat.
• Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
• San Pedro 65 m². Ganbararekin.
• Artekale 62 m². Berritua.
• Zubieta 58 m². Eguzkitsua.
• Kruz Gallastegi 65 m². Eguzkitsua.
• Zubieta 52 m². Prezio ona.
• Masterreka 92 m². Oso ondo.
• Osintxu 62 m². Prezio ona.
• Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.
• San Lorenzo etxe berriak

Antzuola:
• Buztinzi, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Behoko auzoa Etxe onak.
• Etxe berriak 178 m². Duplexak eta adosatuak.

Elgeta:
• San Roke 72 m². Berritua.
• San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
• Salbador 90 m². Berritua.

Oñati:
• Kale Zaharra. 62 m². Terrazarekin. Ortua.
• Lezesarri. 75 m². Eguzkitsua. Erdi berritua.
• Moyua. 75 m². Oso aukera ona.

DEBA
GARAIA

INMOBILIARIA

Teleforno Aranzadi 2

T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA
• Artekale, 89 m², ondo.
• Arrizuri, 97 m², garaiearekin.
• Matxiategi, 65 m², berritua eta aukera ona.
• Ibargarai, 80 m², oso ondo.
• Artekale, 70 m², oso ondo.
• Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
• Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
• Matxiategi, 65 m², ondo.
• Aranerreka, 87 m², oso ondo.
• Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
• San Antonabate, 70 m², oso ondo.
• San Lorenzo, 81 m², eraikuntza berria.
• Martoko, 87 m², ondo, garaiearekin.
• San Pedro, 88 m², ondo.
• Ibargarai, 80 m², oso ondo eta eguzkitsua.
• Koldo Eleizalde, 87 m², oso ondo.
• Urdangarin pasealekua, 132 m², berrituzko.
• Irizar Pasealekua 89 m², ia berria.
• Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
• Simon Arrieta 80 m², berritua, oso ondo.
• Matxiategi, 73 m², berrituzko.
• Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
• Zurradero, 81 m², oso ondo.
• Simon Arrieta, 80 m², berritua. Oso ondo.
• Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
• Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
• Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.

SORALUZE
• Baitegieta, 83 m², berria.

ANTZUOLA
• Eguzki auzoa, 85 m², oso eguzkitsua.
• Antigua 55 m², erdi berritua.

ELGETA
• San Roke, 75 m², ia berria.

gazte zerbitzuak

BEKAK

> **Unibertsitatez kanpoko ikasketak.** Eusko Jaurlaritza; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Unibertsitate mailakoak ez diren ikasleentzat Eusko Jaurlaritzaren 2008/2009 ikasturterako laguntzak. Epea: urriaren 15a.

> **Ikerketa. Tolosako Udala.** Emakumeek Tolosako historiari egindako ekarpenari buruzko ikerketa-beka. Epea: irailaren 30a.

> **Lanbide Hastapena.** Eusko Jaurlaritza; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Lanbide Hastapeneko Prestakuntza Praktikoaren Fasea (PPF) egiteagatik diru-laguntzak. Epea: urriaren 9a.

IKASTAROAK

> **Astialeko begirale eta zuzendari ikastaroak.** Haurren eta gazteen astialeko begirale izateko hainbat ikastaro. Informazio gehiago, <http://www.gipuzkoangazte.info> webgunean.

> **Erlazazio teknikak Hezkide Eskola.** Hezkide Eskolak antolatutako "Erlazazio teknikak adineko pertsonentzat" ikastaroa. Epea: urriaren 3a.

EKINTZAK

> **Zinemaldia.** Donostiako Nazioarteko Zinemaldia. Donostiako 56. Nazioarteko Zinemaldia, irailaren 18tik 27ra arte. Eskaintza osoa: <http://www.sansebastianfestival.com> webgunean.

LEHIAKETAK

> **"Gomendatzen dizut: merezi du!".** Gipuzkoako Gazteentzako hainbat Informazio Bulego. Oporraldien kontakizunen, ostatuari buruzko gomendioen, hiri interesgarri buruzkoen, deskontuetarako agiriak erabiltzeko aholkuen, etab. inguruko lehiaketa. Epea: irailaren 30a.

> **Argazkilaritza.** Ostadar Mendi Taldea. Mendi eta Naturako Argazkien IV. Ostadar Lehiaketa. Epea: urriaren 25a.

LANA

> **Arkitekto teknikoak.** Donostiako Udala. Donostiako Udalean Arkitekto Teknikoko zortzi lanpostu betetzeko deialdia. Epea: urriaren 2a.

> **6 udaltzain.** Lasarte-Oriako Udala. Lasarte-Oriako Udalaren sei Udaltzain -lanpostu betetzeko oposizioa. Epea: urriaren 2a.

> **Bi peoi.** Bergarako Udala. Bergarako Udaleko obra eta zerbitzuetako mantenurako bi peoi lanpostu bete nahi ditu. Epea: irailaren 24a.



ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

astea GOITBn

Astelehena, 22



> **'Harmailatik' saioan hainbat kirol hitzordu 22:15**

Asteburuko kirol hitzorduen berri emango du Xabier Urtzelaia; eskubaloia, Aramaioko rallysprinta eta txirrindularitza dira hizpide.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Muka-Muka.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Ilunpean.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Erreportajea.
- 16:15 Wazemak.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Berbaire.
- 18:15 Marrazkiak: Muka-Muka.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Musikantoi.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazkiak: Muka-Muka
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Harmailatik.
- 21:45 Erreportajea.
- 22:15 Harmailatik
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Musikantoi.
- 23:45 Musikantoi.
- 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 23



> **Maidar Undari elkarrizketa 'Ilunpean' saioan 21:45**

Maidar Unda borrokalari aramaiarra izango da martitzenean *Ilunpean* saioan. Beste batzuen artean Joko Olinpiarrez jardungo du.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Futbola
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Harmailatik.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Erreportajea.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Ikuskizuna.
- 16:15 Eltze beroa.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Berbaire.
- 18:15 Marrazkiak: Futbola.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Eltze beroa.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazkiak: Futbola.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Eltze beroa.
- 21:45 Ilunpean.
- 22:15 Erreportajea.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Berbaire.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 24



> **Elias Kerexeta 'Zaharrak berri' saioan 20:15**

Elias Kerexeta ekoizle eta gidoigileari elkarrizketa egingo diote *Zaharrak berri*-n. Donostiako Zinemaldian sarituko dute Kerexeta.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Muka muka.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Ilunpean.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Erreportajea.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Ikuskizuna.
- 16:15 Eltze beroa.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Wazemak.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean.
- 18:15 Marrazkiak: Muka-Muka.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazkiak: Muka-Muka
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Zaharrak berri
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Erreportajea.
- 22:00 Wazemak.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Ilunpean.
- 00:00 Musikantoi.
- 00:30 Emisio amaiera.

Eguena, 25



> **Musikaren gaineko kontuak 'Musikantoi' saioan 22:15**

Musika zaleok, egunero duzue hitzordua Goiena Telebistan *Musikantoi* saioarekin. Asteotan ere musika eskaintza zabala izango duzue.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Zaharrak berri.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Erreportajea
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Erreportajea.
- 16:00 Gaurkoak.
- 16:00 Ikuskizuna.
- 16:15 Eltze beroa.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 28 Klip.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean.
- 18:15 Marrazkiak: Futbola.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Musikantoi.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazkiak: Futbola
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Eltze beroa.
- 21:45 Berbaire.
- 22:45 Gaurkoak.
- 22:47 Musikantoi.
- 23:15 Ilunpean.
- 23:45 Erreportajea.
- 00:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 26



> **'Berriak' saioa egunero, Goiena Telebistan 14:45**

Egunero eskainiko dute Goiena Telebistan albistegia 19:45ean. Egubakoitzean, baina, eguerdian izango da hori, 14:45ean, hain zuzen ere.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:15 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Eltze beroa.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Berbaire.
- 16:15 Eltze beroa.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Ilunpean.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Erreportajea.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Musikantoi.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazkiak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Eltze Beroa.
- 21:45 Erreportajea.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Musikantoi.
- 23:45 Erreportajea.
- 00:15 Emisio amaiera.

arrasate irrati

FM 107.7

> **Ohiko irratsaioak bueltatuko dira hurrengo astean 10:30**

Ohiko irratsaioa bueltatuko da gaurtik, Arrasate Irratira. Berriz ere entzungai izango dituzue *Ilunpean* eta *Zaharrak berri*. Bestetik, *Astelehenetan Kirolak* irratsaioa ere eskainiko dute gaur, 11:05ean.

Astelehenetik egubakoitzea

10:00-12:00 Igo Autobusera

Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Teknoberriak
Igo Euriborrera!
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearen errepaso
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (irratia@goiena.com))

11:55 Arrasateko albistegia, labur.

12:05 Euskadi Irratiko albistegia

12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak

13:00 Euskadi Irratiko albistegia.

14:00 Igo Autobusera! (errep.)

17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Albistegi laburra.

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu.

Eguraldi kontuak Bixente Pagoagaren eskutik; hirugarren adinekoen gainekoak (dieta, tertulia...) *Zaharrak berri* saioan, eta sexologia kontuak, besteak beste.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

asteko hitzorduak

Musika



ARRASATE
> **Secret Chiefs 3 taldearen kontzertura joateko sarrerak salgai daude**
Secret Chiefs 3 AEBetako talde instrumentalak kontzertua egingo du hilaren 27an Amaia antzokian, eta sarrerak salgai daude: www.generaltickets.com/kutxa helbidean, 943 00 12 00 edo txarteldegian, 10 eurotan.

Erakusketa



BERGARA
> **San Martinetako ageriko margo lehiaketako lanak, erakusketan**
San Martin jaietan jokatu zen ageriko margo lehiaketako lanen erakusketa dago kultura etxean: lanegunetan, 18:00-21:00; eta zapatuetan, 12:00-14:00. Irudian, lehen sariduna, Unai Azkarateren margolana.

Zinema



OÑATI
> **'Street dance' filmaren jarraipena ikusteko parada gaur, astelehena**
Street dance (step up 2) filma ikusteko aukera izango da gaur, astelehena, Oñatiko kultura etxean, 19:30ean. Andie dantzari gaztea da protagonista; Maryland School of Arts eliteko eskolara moldatu beharko da.

zorion agurrak



ARRASATE

Janett

Irailaren 15ean urtebetetzea. Zorionak xiki! Ondo ospatuko zenuen, ala? Patxo pilo bat guapa!



BERGARA

Irati Saez

Irailaren 15ean urtebetetzea Zorionak Pitxin! Txiten partetik patxo handi bat.



ELGOIBAR

Irati Agirreazaldegia

Irailaren 16an urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako lankideen partetik.



ESKORIATZA

Gari Barandiaran Arrieta


Irailaren 16an. Zorionak eta patxo handi bat etxeko eta lagun denen partetik.



ARRASATE

Leire Gonzalez Pereda


Irailaren 16an. Zorionak eta patxo handi bat Arrasateko familieren partetik.



OÑATI

Oxel Blazquez Plazaola

Irailaren 17an. Zorionak Oxel! Merendola goxo goxo prestatu eta itxi txokolate pittin bat gonbidatuentzat. Musu handi bat.



ARRASATE

Pedro Etxabe

Irailaren 17an urtebetetzea. Zorionak aitzajauna! Etxeko partetik.



OÑATI

Ainara Azkoitia

Irailaren 18an. Zorionak wapi-xima!! Ondo pasau zure urtebetetze eguna ta patxo asko familia danan partetik!



BERGARA

Eneko Azkarate

Irailaren 18an urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako lankideen partetik.



ARAMAIO

Jone Inuntziaga

Irailaren 19an urtebetetzea Zorionak eta patxo handi bat! Lankideak.



ESKORIATZA

Antton Salaberria Beitia

Irailaren 20an 9 urte! Zorionak eta patxo handi bat etxeko partetik.



OÑATI

Joseba Guridi Horrillo

Irailaren 20an. Zorionak Joseba, amatxo, aitatxo, Ane, eta etxeko partetik. Patxo handi bat!



ARRASATE

Miren Gonzalez Perez de Albeniz

Irailaren 20an. Zorionak eta Patxo handi bat etxeko partez. Ondo ondo pasa printzesa!



BERGARA

Ane Larrañaga Zubizarreta

Irailaren 21ean. Zorionak eta patxo handi bat etxeko partetik!



ARETXABALETA

Laura Unanue

Irailaren 22an, 11 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxeko guztien partetik.



DEBAGOIENA

Monika Beltran de Heredia

Irailaren 22an, 4 urte. Zorionak sorgintxo eta laztan handi bat. Alaitz, Eñaut eta Manex.



ARAMAIO

Leire Vilches Beitia

Irailaren 24an urtebetetzea. Zorionak potxola Ainhoa, Uxue, aitatxo eta amatxoren partetik!



DEBAGOIENA

Naiara Ignacio Ortiz

Irailaren 25ean, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat gurasoen eta aiton-amonen partetik.



DEBAGOIENA

Maria Mendizabal Unanue

Irailaren 26an, 10 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxeko guztien partetik.



OÑATI

Migel Angel Orueta

Irailaren 27an urtebetetzea. Zorionak lantegiko lagun partetik!



ESKORIATZA

Maren Markaide Alegria

Irailaren 27an urtebetetzea. Zorionak eta patxo handi bat etxeko partetik!



ARETXABALETA

Oskitx Lagunilla

Irailaren 27an urtebetetzea. Zorionak potxolo! Ondo ibili eta gorde txokolate apur bat. Muxu handi handia etxeko guztien partez.



DEBAGOIENA

Olaia eta Julen Otero Aiastui

Olaia eta Julen Otero Aiastui, irailak 27an eta 28an urtebetetzea. Zorionak eta patxo handi bat aitatxo eta amatxoren partetik. Ondo pasau Oñatiko jaixak.



BERGARA

Naroa Arenaza

Irailaren 20an, 8 urte. Zorionak etxeko partetik.



ARRASATE

Jokin Bereziartua

Irailaren 22an urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako lankideen partetik.



BERGARA

Ainhoa Larrañaga

Irailaren 22an, 34 urte. Zorionak familiakoen partetik. Txintxo portatu!



BERGARA

Saioa Leturia

Irailaren 24an, 4 urte. Zorionak eta marrubizko patxo bat etxeko partetik.



BERGARA

Mairer Mujika

Irailaren 25ean, 8 urte. Zorionak etxeko partetik.



BERGARA

Garazi Marzo

Irailaren 26an, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako. Etxeko partetik.



ARRASATE

Iñigo Agirre Garitano

Irailaren 27an, 9 urte. Zorionak eta patxo handi bat familieren partetik. Ondo pasa!



ARRASATE

Elena Oñate

Irailaren 27an urtebetetzea. Amatxo, zorionak! Ondo pasa eguna! Pako, Maren, Leire eta etxeko guztien partetik patxo handi bat



OÑATI

Maialen Maiztegi


Lete Irailaren 23an, urtebete. Zorionak Maialen zure lehenengo urtebetetzean eta marrubizko muxu goxo-goxuak familia guztiaren partez.



BERGARA

Unai Asula

Irailaren 28an, 8 urte. Zorionak eta urte askotarako, etxeko partetik.

**ZORIONAK!**

Zorion itzazu
lagunak eta senitartekoak
ASTELEHENKO
GOIENKARIAREN bidez!

kuxkuxeroa



Julen Iriondo

Txiste txar bat beste baten partez

Urte batzuk badira **Rafa Mungia** ezagutu nuela, Iurretako garaietan. Bera arrasatearra, ni onatiarra, etxe aldera egin nuen nik, eta han jarraitu zuen berak, BAT Basque Teamerako deitu zutenera arte. Bere *Dream Team* izan dadila, besterik ez diot desio *Harmailatik* saioan ere gurekin zintzo kolaboratu zuenari. Esperientzia ederra izan omen du Pekinen, Paralinpiar Jokoetan.

"Bejon degiola" edo antzerako zerbait esan zidan zapatuan **Gerardo Puente**, duela gutxira arte Rafaren lankide

BAT Basque Team bere *Dream Team* izan dadila desio diot Rafa Mungia lagunari

izandakoak haren gainean hizketan ari ginela. Gerardori ere eskerrak, Aramaioko Rallysprintean ETBko autoan gora eta behera ibili gintuela. Aspaldiko partez izan nintzen halako lasterketa bat ikusten, eta ondo egon zen.

Mutila naizelako edo libratu nintzen zenbait zaleren adar-jotzeez. Nirekin batera irudiak hartzen ari ziren ETBko bi lagunak eta nire lankide Oihanek entzun behar izan zituzten makina bat *lora* eta txiste txar. Baina inori ezer esateko ez gaude. Txiste txarrak aipatuta, neronek ere egin nuen gero broma txar bat brometarako ez diren gauzekin. Hemendik barkamen eskea. Haren orde, hona kalean entzun berri dudana: "Zer ikusten da Torontoko dorre garaienetik? Torontotero".

((112))
SOS DEIAK

Jaiotakoak



Kenare Urteaga Vitoria

Arrasate > 3,600 kilo. Irailaren 12an. Gurasoak: Esti (Arrasate) Kepa (Zumarraga). Argazkian: Kenare, sehaskan lo.



Markel Ali Azpitarte

Berriz > 4,090 kilo. Irailaren 13an. Gurasoak: Ainhoa (Berriz) Fredrick (Berriz). Argazkian: Markel jaioberria, amarekin.



Garazi Marquez Cascón

Ermua > 3,320 kilo. Uztailaren 12an. Gurasoak: Ana (Ermua) Hektor (Ermua). Argazkian: Garazi, amarekin.



Irati Narbaez Unzurrunzaga

Arrasate > 4,140 kilo. Irailaren 14an. Gurasoak: Amaia (Arrasate) Aner (Arrasate). Argazkian: Irati, sehaskan lo.



Maddi Etxaniz Urizarbarrena

Elgeta > 2,510 kilo. Irailaren 12an. Gurasoak: Eneritz (Elgeta) Ibai (Elgeta). Argazkian: Maddi jaioberria, Amarekin.



Irantzu Lopez Lasuen

Otxandio > 3,240 kilo. Irailaren 11n. Gurasoak: Ainhoa (Otxandio) Jon Ander (Oleta). Argazkian: Irantzu jaioberria, Amarekin.



Goizane Agirreurreta

Arrasate > 3,320 kilo. Irailaren 17an. Gurasoak: Maria (Arrasate) Iker (Aramaio). Argazkian: Goizane jaioberria, aitarekin.



Markel Agiriano

Arrasate > Irailaren 17an. Gurasoak: Susana (Arrasate) Jose (Arrasate). Argazkian: Markel jaioberria, sehaskan lo.



Oihan Arriaran Zubillaga

Arrasate > 3,400 kilo. Irailaren 18an. Gurasoak: Maider (Arrasate) Eñaut (Arrasate). Argazkian: Oihan jaioberria, Aitarekin.



June Canales Diez

Arrasate > 3,120 kilo. Irailaren 18an. Gurasoak: Saioa (Arrasate) Abel (Arrasate). Argazkian: June jaioberria, aitarekin.



Nagore Sebastian Fernandez

Arrasate > 2,120 kilo. Irailaren 18an. Gurasoak: Maria Jesus (Arrasate) Ricardo (Zamora). Argazkian: Nagore, sehaskan lo.



Aian Jarilla Fernandez

Arrasate > 3,190 kilo. Irailaren 18an. Gurasoak: Sole (Aretxabaleta) Sergio (Arrasate). Argazkian: Aian, sehaskan lo.

PARTE HARTU

Kintadak,
aste bukaerako
ezkontzak,
txutxu-mutxuak...

Tarte hau zure txokoa da, irakurle.

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera:
astelehena@goiena.com



Eneko Yarza Ugariaga

Arrasate > 2,900 kilo. Irailaren 17an. Gurasoak: Irene (Zarautz) Iban (Arrasate). Argazkian: Eneko, sehaskan lo.



Aitor Fernandez Unamuno

Bergara > 3,120 kilo. Irailaren 17an. Gurasoak: Amaia (Bergara) Pepe (Arrasate). Argazkian: Aitor jaioberria, sehaskan lo.



Ehari Barquero Baglietto

Elgeta > 2,800 kilo. Irailaren 19an. Gurasoak: Mari (Elgeta) David (Elgeta). Argazkian: Ehari jaioberria, sehaskan.

BABESLEA



IKUSI MAKUSI

Umeen paradisua

Maidar Unda > Borroka askeko jokalarari olinpiarra

"Adrenalina botatzeko egiten dut nik borroka"

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
Maidar Unda oletarra Txinako olinpiar jokoetatik etorri berria du. Hamaralditan Espainiako txapelaldun izan den Undak entrenatzen jarraitzeko asmoa dauka, eta familiako ardi esplotazioaren kargu egin berri da. Buru-belarri dabil orain ere.

Zelan konpontzen zenituen umetan lagunekin eta zenituen eztabaidak?

Txikitik zakarra eta jenio bizikoa nintzen, eta borroka asko izaten nituen. Gerora, beste bide batzuk ezagutu ditut.

Bada borroka askea beste gustuko duzun beste kirolirik? Probatu duzu besteren bat?

Txikitik futboleko apur bat ibilia naiz, baina ostikada asko ematen nituen eta ez nuen hain gustuko. Porterian, berriz, gusturago egoten nintzen. Dena dela, nik ez dut borroka askea egiten emaitzengatik, adrenalina botatzeko balio didalako baizik.

Zer esaten dizu jendeak kalean? Ezagutzen eta gelditzen zaituzte?

Orain bai. Lehen uste nuen zerbait arraroa nintzela, baina emaitzak ikusten direnean eta hor urte dezente daramazunean jendeak errespetatzen zaitu; hori eskertzekoa da. Orain jendea kalean begira gelditzen zait. Egunez ondo, baina gauez jendeak konfiantza larregi hartzen du, eta gurago dut gauez ez irtezea.

Horregatik ez zara gauez irtezen?

Ez horregatik bakarrik, baina badu eragina. Lehen parranda zalea nintzen, baina jakina

da parranda eta kirola ez direla osagarriak.

Athleticeko Koikili jokalaririk edo zuk, zeinek irabazten zituen borrokak?

Koikili fenomeno zen, abidura handia zeukan. Nik baino pisu gutxiago zeukan, baina oso oso ona zen. Fuboleko eskaintza izan ez balu, borrokalari ona izango litzateke. Harreman oso ona daukagu, nahiz eta gutxitan elkar ikusi. Biok dakigu zenbat kostatu zaigun gora heltzea.

Etxean sinistu dizute Txinako azkeneko olinpiar jokoak izango direla?

Baietz diote, baina badakite ez dela hala izango. Aitak nik beste kirolen bat egitea nahiko luke, eta jipoi galantak eman zizkidatenean oso txarto pasa zuten etxean. Hala ere, badakite niretzat borroka askea oso-oso garrantzitsua dela eta oraindik ez diodala utziko. Londresko olinpiar jokoak urrun daude oraindik, baina neuk bidean dauden hainbat txapelketetan esku hartuko dut eta entrenatzen jarraituko dut.



Txikitatik ardi artean ibili da Maidar Unda borrokalari.

IKER BARANDIARAN

ai, ene!



Pisuetarako hozkailua

Aspertuta zaude zure pisukideek janaria kentzeaz, hozkailua zikin uzteaz edo yogurtak jateaz? Akabo arazoak hozkailu berri honekin. Banakako modulutan, gure adina gehi dakizkio eta kutxa gotorren moduan, gakoa dauka!

<http://www.geekno.com>

biharamuna

Juan Kruz Mendizabal

Batera

Antzuolara joango gara Iñigo Mitxelena abade berria eta biok ibilbide berri bat haste-ara. San Pedro parrokiaren sartzeko gara biok. Gure kontuak batera axola ez zaizkiula pentsa dezakezu. Erljio eta fede kontu hauetan gutxiengo bat garelako, lau katu basterik ez garelako geratzen. Bagenekien... Halere, Iñigo eta norenk batera lan egingo dugu ateak irekiz, txiki-ekin jostatuz, datorrenari harrera eginez. Bergaran edo Antzuolan gurekin topo egingo duzu: ezkontzaren batean, edo kalean, zure alabaren katekesian, etxe-ko baten hiletan ospakizunean... hortxe izango gaituzte, entzuteko prest, lanerako hurbil.



Askok galdetzen digute egunotan zer eta nola lan egingo dugun: argi dago gauza dezente aldatzea tokatuko zaigula. Ez dira ziurrenik denen gustuko izango, baina egoera berrira moldatzen ikasi behar dugu guztiok. Lanerako prest gaude. Toki eta ordu berean egoteko gaitasunik ez dugunez, batera lan egingo dugu egongo garen tokietan: San Pedron, Santa Marinan edo Antzuolan, Uzarragan nahiz Elosun.

Guztion laguntza behar dugu, guztion ulergarritasuna batera egin nahi duguna egiteko. Norbaiti bost axola, besteari ez zaio behar bada ongi irudituko. Gure beharrea dagoenarentzat, hor izango gaituzte.

eguraldia



MAXIMOA

+19

MINIMOA

+14

Giro ilun eta euritsuarekin hasiko dugu astea. Zeruan hodei beltz lodiak izango dira; edonon zaparrada mardulak utziko dituzte.

www.euskalmet.net

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

5767

zenbakira

SMS bakoitzeko: **1,2 € + BEZa**

smsoinu

Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) | KODEA

Himnoak
Eibar | **EIBAR**
Athletic Club | **BILBAO**
Osasuna | **OSASUNA**
Real | **REAL**
Real Union | **UNION**

Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) | **SOROTAN**
Bai euskarari (Pantxoa) | **BAI**
Bakezaleak (Anje Duhalde) | **BAKE**
Bakaria Maite (Benito Lerbundil) | **BIZKAIA**
Eperak (Anje Duhalde) | **EPERRAK**
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorn) | **EUSKAL**
Euskaldun bariaren balada (Oskorn) | **EUSKALDUN**
Ez da posible (Ruper Ordonika) | **POSIBLE**
Furra Furra (Oskorn) | **FURRA**
Galziara noa (Oskorn) | **GALZIARA**
Gernikako Arbola (Gontzal Mendibil) | **GERNIKA1**
Haika Muti (Mikel Laboa) | **HAIKA**

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
Abestiaren izena | KODEA

Izarren hautsa (Xabier Lete) | **IZARREN**
Lepoa hartu ta (Pantxoa/Peio) | **LEPOAN**
Marinelaren zai (Sorotan Bele) | **MARINE**
Nere herriko neska maite (B.Lerbundil) | **NERE**
Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarin) | **NON**
O! Ama Euskal Herria (B.Lerbundil) | **OIAMA**
Tiraki (Oskorn) | **TIRA**
Txabamabainabu (Mikel Urdangarin) | **TXATXA**
Txoria bori (Mikel Laboa) | **TXORIA**
Zaindu maite duzun hori (Ruper Ordonika) | **ZAINDU**

Herrikoia
Bagare | **BAGARE**
Desde Santurce a Bilbao | **DESDE**
Ikusi Mendizaleak | **MENDI**
Pintxo-pintxo | **PINTXO**
San Simon eta San Judas | **SAN**

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

OHARRAK
1. **BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonora bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. **BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuzko, jar zaituzte zure hornitzailearekin harremanetan. Alia ematea doan da eta Ki jaisiera bakarrik ordaindu behariko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sistemaren alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora. / * Vodafone: deitu 123-va / * Movistar: deitu 609-ra.
3. **ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. **PERSONALIZAZIOAK:** Zure naurira egin ditzaizkugu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dazatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

WEBGUNEAN www.smsoinu.com